

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: **216/2008 (EE) ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2008ko otsailaren 20koa, abiazio zibileko baterako araei buruzkoa eta Aire Segurtasuneko Europako Agentzia sortzen duena eta Kontseiluaren 91/670/EEE Zuzentaraua, 1592/2002 (EE) Erregelamendua eta 2004/36/EE Zuzentaraua baliogabetzen dituen**

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da :
«REGLAMENTO (CE) N° 216/2008 DEL PARLAMENTO Y DEL CONSEJO, de 20 de febrero de 2008, sobre normas comunes en el ámbito de la aviación civil y por el que se crea una Agencia Europea de Seguridad Aérea, y se deroga la Directiva 91/670/CEE del Consejo, el Reglamento (CE) no 1592/2002 y la Directiva 2004/36/CE»
(*Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 79/1, 2008/3/19koa*)

216/2008 (EE) erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 79/1, 2008/3/19koa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

I

(Derrigorrez argitaratu beharreko EE/Euratom Tratatuak aplikatuta onartutako egintzak)

ERREGELAMENDUAK

216/2008 (EE) ERREGELAMENDUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA

2008ko otsailaren 20koa

abiazio zibileko baterako araei buruzkoa eta Aire Segurtasuneko Europako Agentzia sortzen duena eta Kontseiluaren 91/670/EEE Zuzentaraua, 1592/2002 (EE) Erregelamendua eta 2004/36/EE Zuzentaraua baliogabetzen dituena

(Testu egokia EEeri dagokionez)

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNeko KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzeko Tratatuaz aztertu dute, eta, bereziki, haren 80. artikuluko 2. paragrafoa,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute ⁽¹⁾,

Eta, Eskualdeetako Komiteari aurrez kontsulta egin ondoren,

Tratatuko 251. artikuluko ⁽²⁾ araututako prozedura betez,

Alderdi hauek kontuan hartu dituzte:

(1) Abiazio zibilaren esparruan, herritarrak babesteari dagokionez, maila gorena eta uniforme bermatu behar da uneoro; horretarako, segurtasunerako baterako arauak onartu behar dira eta ekoizleek, pertsonak eta erakundeek Erkidego barruan arau horiek eta ingurumena babesteko onartutako arauak betetzen dituztela ziurtatu behar da. Horrek guztiorrek merkantzien, pertsonen eta erakundeen zirkulazio askea ahalbidetu behar du, barne-merkatuan.

(2) Horrez gain, Tratatuaz indarrean dagoen lurraldearen barnean edo lurralde horretara joan-etorrian aritzen diren beste herrialde batzuetako aireontziak behar bezala ikuskatu behar dira Erkidegoan, 1944ko abenduaren 7an Chicagon sinatutako Nazioarteko Abiazio Zibilaren Hitzarmenean («Chicagoko Hitzarmena» ere esaten zaiona) ezarritako mugak errespetatuz. Hitzarmen horretan estatu kide guztiek parte hartzen dute.

(3) Chicagoko Hitzarmenean, jada, gutxieneko arau batzuk ezartzen dira abiazio zibilaren segurtasuna eta hari dagokion ingurumenaren babesa bermatzeko. Erkidegoko funtsezko betekizunek eta haiek aplikatzeko neurriek estatu kideek hitzarmen horretatik eratorzen diren betebeharrak betetzen dituztela bermatu behar dute, beste herrialde batzuekiko dituzten betebeharrak barne.

(4) Erkidegoak, Chicagoko Hitzarmenean ezartzen diren gomendatutako araei eta jardueri jarraiki, funtsezko betekizun batzuk ezarri behar ditu. Betekizun horiek jarraian adierazten diren arloetan aplikatu ahal izango dira: produktuetan, aeronautikako osagai eta ekipamenduetan, aireontzien ustiapenean parte hartzen duten pertsona eta

(1) C 185 EO, 2006.08.08koa, 106. or.

(2) Europako Parlamentuaren irizpena, 2007ko martxoaren 14koa (EO C 301 E, 2007.12.13koa, 103. or.), Kontseiluaren Jarrera Bateratua, 2007ko urriaren 15ekoa (EO C 277 E, 2007.11.20koa, 8. or.) eta Europako Parlamentuaren Jarrera, 2007ko abenduaren 12koa, Kontseiluaren 2008ko urtarrilaren 31ko Erabakia.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

erakundeetan eta pilotuen prestakuntzan eta mediku-azterketan parte hartzen duten pertsona eta produktuetan. Batzordeari beharrezkoak diren aplikazio-arauak onartzeko eskumena eman behar zaio.

(5) Ez litzateke egokia izango aireontzi guztiei baterako arauak aplikatzea, bereziki kasu hauetan: diseinu sinpleko tresnak badira edo gehienbat tokian-tokian erabiltzen badira, artisau-mailan eraikita badaude edo modelo bereziki bitxia bada, edo unitate kopuru txikia bada. Horren ondorioz, aireontzi horiek estatu kideen arautze-kontrolari jarraitu behar diete, eta Erregelamendu honek ez ditu gainerako estatu kideak araudi hura onartzera behartuko. Dena den, aisiarako abiazioaren segurtasun orokorra areagotzeko emandako neurriak hartu behar dira. Bereziki, kontuan hartu behar dira aineratzeko gehieneko masa mugatua izan eta gero eta errendimendu handiagoa duten, Erkidegoko lurralde guztian zirkula dezaketen eta industrialki eraikitzen diren hegazkinak eta helikopteroak. Hortaz, Europako esparruan hobe erregula daitezke, segurtasun-maila uniformea eta beharrezkoa den ingurumen-babesa ezartze aldera.

(6) Argi eta garbi zehaztu behar da Erkidegoaren jardun-irismena, Erregelamendu hau eta bertan aplikatu beharreko xedapenak bete behar dituzten pertsonak, erakundeak eta produktuak zein diren zehazteko eta inolako anbiguotasunik ez egoteko. Irismen hori argi eta garbi zehaztu behar da: Erregelamendu hau aplikatu behar ez duten aireontzien zerrenda bat egin behar da.

(7) Aeronautikako produktuek, osagaiak eta ekipamenduek, merkataritzako aire-garraioan diharduten langileek eta pilotuen prestakuntzan eta mediku-azterketan parte hartzen duten pilotuek, pertsonak, produktuek eta erakundeek ziurtagiri edo lizentzia bat jaso behar dute, Chicagoko Hitzarmenak ezarritako arau eta jardura gomendatuei jarraiki, Erkidegoan ezartzen diren funtsezko betekizunak betetzen dituztela uste denean. Batzordeari ziurtagiria, edo, hala badagokio, gaitasun-adierazpena emateko baldintzak ezartzeko aplikatu beharreko xedapenak garatzeko eskumena eman behar zaio, operazio-mota bakoitzarekin lotutako arriskuak kontuan hartuz, aireko lan jakin batzuk eta aireontzi txikiekin egiten diren toki-hegaldiak barne.

(8) Merkataritza-helbururik ez duten operazioetan, aireontziaren konplexutasunaren arabera egokitu behar dira operazioei eta lizentziei dagozkien arauak eta horri buruzko definizio bat taxutu behar da.

(9) Aisiarako pilotuaren lizentziarekin lotutako eskumenak dagokion gaitasuna eskuratzeko jasotako entrenamenduen arabera mugatu behar dira, aplikatu beharreko xedapenei jarraiki.

(10) Merkantzien, pertsonen eta zerbitzuen zirkulazio askeari eta garraiorako baterako politikari dagozkion erkidegoaren helburuak betetzeko, estatu kideek produktuak, osagaiak eta ekipamenduak, nahiz Erregelamendu honen eta aplikatu beharreko xedapenen arabera ziurtagiria jaso duten erakundeak eta pertsonak onartu beharko dituzte, inolako betekizun edo ebaluazio gehigarririk gabe.

(11) Jarraian adierazten diren egoera bereziei aurre egiteko malgutasuna izan behar da: premiazko segurtasun-neurriei edo aurreikusitako gabezi edo mugatutako beharrezko operatiboei aurre egiteko. Halaber, beste bide batzuetatik segurtasun-maila bera erdiesteko aukera aurreikusitako behar da. Estatu kideek Erregelamendu honetako betekizunei eta aplikatu beharreko xedapenei salbuespenak ezartzeko eskubidea izan behar dute, betiere, irismen oso mugatua badute eta erkidegoaren kontrol egokia pasatzen badute.

(12) Ezinbestekoa da Erregelamendu honek araututako arlo guztietan xedapenak hobetzea, gaur egun erkidegoan edo estatuetan burutzen diren zeregin zehatzak organo espezializatu bakarrak burutu ditzen. Beraz, ezinbestekoa da, egitura instituzional baten barnean eta Erkidegoan indarrean dauden botere-banaketaren barnean, Aire Segurtasuneko Europako Agentzia (aurrerantzean «Agentzia») bat sortzea, arlo teknikoetan independentea izango dena eta lege-, administrazio- eta finantza-autonomia izango duena. Ezinbestekoa, eta, beraz, komenigarria da Erkidegoko organo horrek izaera juridikoa eta Erregelamendu honek ematen dizkion betearazte-ekumenak gauzatzeko gaitasuna izatea.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

(13) Erkidegoko sistema instituzionalaren arabera, lehenik eta behin, estatu kideen eskumena da erkidegoko Zuzenbidea aplikatzea. Horrenbestez, Erregelamendu honek eta bertan agertzen diren aplikatu beharreko xedapenek eskatzen dituzten ziurtapen-funtzioak estatu-esparruan gauzatu behar dira. Dena den, behar bezala zehaztutako kasu jakin batzuetan, Agentziari eman behar zaio ziurtapen-funtzioak burutzeko eskumena, Erregelamendu honetan zehazten den bezalaxe. Arrazoi bera dela medio, uniformetasuna bermatzeko eta barne-merkatuaren funtzionamendua ahalbidetzeko egoki ikusten denean, Agentziak aireontzien ustiapenean, eskifaian kualifikazioan eta beste herrialde batzuetako aireontzien segurtasunean beharrezkoak diren neurriak hartzeko gaitasuna izan behar du.

(14) 2111/2005 (EE) Erregelamendua⁽¹⁾, segurtasun-kontuagatik Erkidego barnean ustiapen-debekua duten hegazkin-konpainien Erkidegoko zerrenda eguneratzeko egokia den informazio oro jakinaraztera derrigortzen du Agentzia. Agentziak Erregelamendu honen babespeko hegazkin-konpainia bati baimen bat ematea ezesten badu, Batzordeari helarazi beharko dio erabaki horren arrazoiei buruzko informazio oro, hala badagokio, hegazkin-konpainiaren izena zerrenda horretan ager dadin.

(15) Erregelamendu honen aplikazio-eremuetan, abiazio zibileko Erkidegoko segurtasun-sistema baten funtzionamendua eraginkorra izan dadin, Batzordearen, estatu kideen eta Agentziaren arteko lankidetzat sendotu behar da, segurtasun-akatsak hautemateko eta haiek zuzentzeko neurriak hartzeko.

(16) Segurtasunari buruzko kultura orokorra sustatzeko eta Erregelamendu honen aplikazio-eremuetan arautze-sistemak egoki funtzionatzeko, gorabeherak eta gertaerak lekukoek jakinarazi behar dituzte berehala. Zigorrik gabeko ingurune bat sortuz gero, jakinarazpen hori errazago emango litzateke, ondorioz, estatu kideek hala informazioa nola informazioa eman dutenak babesten direla ziurtatzeko beharrezkoak diren neurriak hartu behar dituzte.

(17) Hegazkin-istripuei buruzko ikerketen ondorioek ahalik eta denbora laburrenean izan behar dituzte eragin praktikoak, bereziki, aireontzien diseinuan okerrak antzematen direnean edo gai operatiboak direnean, erabiltzaileek aireko garraioan konfiantza berreskuratu dezaten.

(18) Erregelamendu honetan segurtasunari dagokionez jasotzen diren helburuak betetzen laguntzeko, Erkidegoak Agentziak bidalitako ziurtagirien eta onarpenen titularrei zigor ekonomikoak ezartzeko eskumena izan beharko du. Erkidegoko ordenamendu juridikoari jarraiki, Batzordeak Agentziak emandako gomendio batean oinarrituta ezarri beharko ditu zigor ekonomiko horiek. Aipagarria da, zigor ekonomikoak sartzeari esker, Batzordeak lizentzia bat kentzea baino xehetasun, malgutasun eta graduatze handiagoa izango duen erantzuna eman ahal izango diola arau bat ez betetzeari.

(19) 229. artikuluari jarraiki Tratatuan ezartzen denaren arabera, Batzordeak Erregelamendu honen arabera hartutako erabaki guztiak Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiak berrikusi behar dituenez, Justizia Auzitegiak erabateko jurisdikzio eskumena izan behar du Batzordeak isunak edo isun hertsagarriak ezartzeko Erabakien gainean.

(20) Bidaiariak gero eta gehiago azaltzen dituzten hegaldian zeharreko osasunari eta ongizateari buruzko kezkei erantzuteko, ezinbestekoa da bidaiarien segurtasun eta osasun hobea bermatzen duten aireontziak diseinatzea.

(21) Erregelamendu honetako helburuak eraginkortasunez bete daitezke beste herrialde batzuekin lankidetzan arituta. Kasu horretan, Batzordeak herrialde horiekin hitzartutako akordioen bidez egoki daitezke Erregelamendu honetako xedapenak eta aplikazio-xedapenak. Akordio horiek egon ezean, ordea, estatu kideek beste herrialde batek

(1) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2111/2005 Erregelamendua (EE), 2005eko abenduaren 14koa, Erkidegoan ustiatzeko debekua duten hegazkin-konpainien erkidegoko zerrenda bat ezartzeari eta bidaiariak hegaldia antolatzen duen konpainiaren identitateari buruz jaso beharreko informazioari buruzkoa (L 344 EO, 2005.12.27koa, 15. or.).

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

produktuei, osagaiei eta ekipamenduei, nahiz atzerriko erakundeei eta langileei emandako onarpenak aitortzeko ahalmena izan behar dute, Erkidegoaren kontrola pasa ostean.

(22) Erkidegoa behar bezala lagun dezan, Agentziak Erregelamendu honetan jasotzen diren abiazio zibilaren segurtasunerako eta ingurumenaren babeserako arlo guztietan dituen ezagutza-teknikoak gara ditzala ahalbidetu behar da. Beharrezkoa den legedia prestatzen lagundu behar dio Batzordeari eta estatu kideekin eta sektorearekin lankidetzan aritu behar du legedi hori aplikatzeko. Ziurtaginei eta dokumentazioari dagozkien zehaztapen orientagarriak bidaltzeko ahalmena izan behar du, halaber, ondorio teknikoak taxutu eta ziurtagiriak egin behar ditu, Batzordeari lagundu behar dio Erregelamendu hau eta aplikatu beharreko xedapenak aplikatzen direla ikuskatzen, eta bere zereginiei ekiteko beharrezkoa zaion boterea eman behar zaio.

(23) Agentziaren zereginen eraginkortasuna kontrolatze aldera, administrazio-kontseilu batean ordezkatu behar dira Batzordea eta estatu kideak. Kontseilu horri aurrekontuak prestatzeko, haren gauzapena frogatzeko, finantza-arau egokiak hartzeko, Agentziak erabakiak har ditzan lan-prozedura gardenak ezartzeko eta zuzendari exekutiboak izendatzeko beharrezkoak diren ahalmenak eman behar zaizkio. Halaber, Agentzia trebatu egin behar da, ikerketak egin ditzan eta Batzordearekin eta estatu kideekin dagokion lankidetzara antola dezan. Agentziak Batzordeari eta estatu kideei nazioarteko harremanetan laguntza ematea desiragarria da, arauak bateratzen, onarpenak aitortzen eta lankidetzara teknikoan ere laguntza emanez. Era berean, desiragarria da, beste herrialde batzuetako aeronautika-agintaritzekin eta Erregelamendu honetan jasotzen diren gaietan eskumena duten nazioarteko erakundeekin harreman egokiak finkatzeko gaitasuna izatea.

(24) Gardentasun handiagoa bermatzeko, alde interesdunek Agentziaren administrazio-kontseiluan ordezkatura egon behar dute, behatzaile modura.

(25) Interes publikoak, segurtasun-gaietan Agentziak duen egitekoa, soilik aditu independenteetan oinarritzea eskatzen du, Erregelamendu hau eta Batzordeak aplikatzeko hartutako xedapenak zehaztasun osoz aplikatuz. Horretarako, segurtasunarekin zerikusia duten Agentziaren erabaki guztiak zuzendari exekutiboak hartu behar ditu. Ildo horretatik, aipatutako zuzendariak malgutasun handia izan behar du aholkularitza eskuratu eta Agentziaren barne-funtzionamendua antolatu ahal izateko. Dena den, Agentziak estatu-agintariek aplikatu beharreko arauen proiektu orokorrak taxutu behar dituztenean, estatu kideek erabakiak hartzeko prozesuan parte hartu behar dute.

(26) Ezinbestekoa da Agentziak hartutako erabakiak eragindako aldeek abiazio-arloko ezaugarri berezietara egokitzen diren baliabideak izatea. Helegite-areto espezializatu baten aurrean zuzendari exekutiboaren erabakiari helegitea jartzea ahalbidetzen duen mekanismo egoki bat ezarri behar da, haren ebazpenei, aldi berean, justizia auzitegien aurrean helegitea jartzea ere ahalbidetuko duena.

(27) Agentziaren erabateko autonomia eta independentzia bermatze aldera, aurrekontu autonomo bat eman behar zaio. Aurrekontu horretako diru-sarrerak Erkidegoaren zergetatik eta sistemako erabiltzaileek ordaindutako tasetatik eratortzen dira funtsean. Estatu kideen, beste herrialde batzuen edo bestelako erakunderen baten eskutik jasotako finantza-laguntzek ezin dute kolokan jarri Agentziaren independentzia edo inpartzialtasuna. Erkidegoko aurrekontu-prozedura aplikagarria izan behar da erkidegoko laguntzan eta Europar Batasuneko aurrekontu orokorraren baitako edozein diru-laguntzatan. Kontu Auzitegiak kontuen auditoria egin behar du.

(28) Agentziaren tokiko bulegoak zabaldu aurretik, araudi orokor batean jaso behar dira bete beharreko baldintzak eta dagokion estatu kideak egin beharreko ekarpena.

(29) Erkidegoko estatuak beren kabuz ezin dituztenez behar bezala bete Erregelamendu honetako helburuak —hau da, abiazio zibilaren segurtasunerako arloan eta ingurumenaren babeserako arloan estatu kide guztientzat baliokideak izango diren arauak uniformeki ezartzea eta aplikatzea— eta, beraz, Erregelamendu honen jarduketaren eremua Europakoa izaki, Erkidegoaren esparruan errazago lor daitezkeenez, Erkidegoak neurriak har ditzake horren guztiaren inguruan, Tratatuaren 5. artikuluan emandako subsidiarotasun-printzipioari jarraiki. Esandako artikulua

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

horretan adierazitako proportzionaltasun-printzipioaren arabera, Erregelamendu honek ez ditu helburu horiek lortzeko beharrezko neurriak besterik hartzen.

(30) Europar Batasuneko kide diren Europako herrialdeen partaidetza lortzeko beharra aitortu da Europako herrialdeez osatutako dimentsio egoki bat bermatze aldera, Europa guztian abiazioaren segurtasuna hobetzea ahalbidetuko duena. Erregelamendu honen aplikazio-eremuan Erkidegoaren altxorra hartu eta aplikatzeko xedez Erkidegoarekin akordioak sinatu dituzten Europako herrialdeek, akordio horietan ezartzen diren baldintzen arabera ekin behar diote lanari.

(31) Helburu orokorra da Aeronautika-agintaritzen bidez estatu kideen zereginak eta lanak Agentziari modu eraginkorrean transferitzea, elkarren arteko lankidetzatik eratortzen direnak barne, egungo segurtasun-maila handiak batera murriztu gabe eta ziurtapen-epetan eragin negatiborik utzi gabe. Ezinbesteko trantsizio hori ahalbidetzeko neurri egokiak hartu behar dira.

(32) Erregelamendu honen bitartez abiazio zibilaren arloko baterako arauak ezartzen dira eta Aire Segurtasuneko Europako Agentzia sortzen da. Horren ondorioz, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2002ko uztailaren 15eko 1592/2002 (EE) Erregelamendua, abiazio zibileko baterako arauari buruzkoa eta Aire Segurtasuneko Europako Agentzia ⁽¹⁾ sortzen duena, baliogabetu egin behar da.

(33) Erregelamendu honek aukera egokia eta osatua eskaintzen du, abiazio zibilaren arloan baterako arau teknikoak eta administrazio-prozedurak zehaztu eta aplikatzeko. Horren ondorioz, Kontseiluaren 1991ko abenduaren 16ko 3922/91 (EEE) Erregelamenduko III. eranskina, abiazio zibilean aplikatu beharreko arau teknikoak eta administrazio-prozedurak harmonizatzeari buruzkoa ⁽²⁾, eta, Kontseiluaren 1991ko abenduaren 16ko 91/670/EEE Zuzentaraua, abiazio zibilean lan egiten duten langileen lizentziak elkarren artean onartzeari buruzkoa ⁽³⁾, baliogabetu egin behar dira dagokion unean, egintza horien arabera dagoeneko igorri diren produktuen, pertsonen eta erakundeen ziurtagiri edo lizentzien kalterik gabe.

(34) Erregelamendu honek aukera egokia eta osatua eskaintzen du, Erkidegoko aireportuak erabiltzen dituzten beste herrialde batzuetako aireontzien segurtasunari begira. Horren ondorioz, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko apirilaren 21eko 2004/36/EE Zuzentaraua, Erkidegoko aireportuak erabiltzen dituzten beste herrialde batzuetako aireontzien segurtasunari buruzkoa ⁽⁴⁾, baliogabetu egin behar da dagokion unean, informazioa jasotzeari, pista-ikuskapenari eta informazio-trukeari dagokienez aplikatu beharreko neurrien kalterik gabe.

(35) Erregelamendu hau abiazio zibilaren segurtasunarekin lotutako beste edozein arlotan aplikatu ahal izango da, Tratatuaren araberrako geroagoko proposamen baten baitan.

(36) Ezinbestekoa da segurtasun-arloan datu delikatuak babestea ziurtatzeko nahiz abiazio zibilaren segurtasun-mailari eta hari dagokion ingurumenaren babesari buruzko informazio egokia jendaurrean zabaltzeko neurriak ezartzea, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2001eko maiatzaren 30eko 1049/2001 Erregelamendua, publikoak Europako Parlamentuaren, Kontseiluaren eta Batzordearen ⁽⁵⁾ agirieta duen sarbidea ezartzen duena, kontuan hartuz. Halaber, ezinbestekoa da dagokion barne-zuzenbidea ere ezartzea. Agentziak Erregelamendu honetako 8. artikulua aplikatuz hartutako erabakiek Arartekoaren aurrean erreklamazio bat aurkezteko edo Justizia Auzitegiaren aurrean helegite bat jartzeko ahalmena izan behar dute, Tratatuaren 195 eta 230. artikuluen arabera, hurrenez hurren.

(1) L 240 EO, 2002.09.07koa, 1.or. Erregelamendu hori Kontseiluaren 334/2007 Erregelamendua (EE) aldatu zuen azkenekoz (L 88 EO, 2007.03.29koa, 39. or.).

(2) L 373 EO, 1991.12.31koa, 4.or. Erregelamendu hori Batzordearen 8/2008 Erregelamendua (EE) aldatu zuen azkenekoz (L 10 EO, 2008.01.12koa, 1. or.).

(3) L 373 EO, 1991.12.31koa, 1.or.

(4) L 143 EO, 2004.04.30koa, 76.or. Zuzentarau hori 2111/2005 Erregelamendua (EE) aldatu zuen.

(5) L 145 EO, 2001.05.31koa, 43.or.

(37) Egokia da Erregelamendu hau betearazteko nahitaezkoak diren neurriak onartzea, Kontseiluaren 1999ko ekainaren 28ko 1999/468/EE Erabakia, Batzordeari esleitutako betearazpen-eskumenak erabiltzeko prozedurak ezartzen dituen, betez ⁽⁶⁾. (38) Komeni da Batzordeari eskumenak ematea, bereziki, jarraian adierazten diren arloei buruzko aplikazio-arauak har ditzan: aireko nabigazioari, eskifaia-kideei lizentziak emateari eta lizentzia horiei dagozkien onarpenei, aire-operazioei, beste herrialde batzuetako operadoreek erabilitako aireontziei, ikuskapenari eta aplikazioari buruzkoak. Halaber, Agentziari dagozkion tasei eta diru-sarrerei buruzko araudi bat onartzeko eskumena ematea ere komeni da.

(38) Neurri horiek orokorrak eta Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldaraztekoak direnez gero (funtsezkoak ez diren elementu gehiagorekin ere osatu daitezke), 1999/468/EE Erabakiko 5 bis artikuluan agindutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera hartu behar dira.

(39) Eraginkortasuna dela-eta, kontrol-dun arautze-prozeduretan normalean aplikatzen diren epeak laburtu egin behar dira, ingurumenaren babeserako funtsezko betekizunak egokitzeko eta ingurumenaren babeserako aplikazio-arauak hartzeko.

(40) Dagoen presa kontuan hartuta, ezinbestekoa da 1999/468/EE Erabakiko 5 bis artikuluko 6. paragrafoan aipatzen den presazko prozedura aplikatzea, Batzordeak segurtasun-arazo baten aurrean estatu kideek berehala hartu beharreko neurriak zein diren erabaki dezan, eta estatu kideek aurkeztutako baimenak atzera bota daitezten.

HORRENBESTEZ, ERREGELAMENDU HAU ONARTU DUTE:

I. KAPITULUA

PRINTZIPIOAK

1. artikulua

Aplikazio-eremua

1. Erregelamendu hau aplikatu ahal izango da:

a) aeronautikako produktuen, osagaien eta ekipamenduen diseinuan, ekoizpenean eta mantentze-lanetan nahiz aeronautikako produktu, osagai eta ekipamendu horien diseinuan, ekoizpenean eta mantentze-lanetan parte hartzen duten langileengan eta erakundeetan.

b) aireontzien ustiapenean parte hartzen duten langileengan eta erakundeetan.

2. Lehenengo paragrafoan aipatzen diren produktu, osagai, ekipamendu, langile eta erakundeek jarraian adierazten diren ekintzetan parte hartzen dutenean, Erregelamendu hau ez da aplikatuko: operazio militarretan, muga-operazioetan, polizia-operazioetan edo antzekoetan. Ahal den neurrian, estatu kideek ekintza edo operazio horiek Erregelamendu honetako helburuekin bateragarriak izatea ziurtatuko dute.

2. artikulua

Helburuak

1. Erregelamendu honen helburu nagusia Europako abiazio zibilean segurtasun-maila handia eta uniformea ezartzea eta horri eustea izango da.

2. Erregelamendu honek arautzen dituen arloetan, jarraian adierazten direnak helburu osagarriak izango dira:

(6) L 184 EO, 1999.07.17koa, 23.or. Erabaki hori 2006/512/EE Erabakiak aldatu zuen (L 200 EO, 2006.07.22koa, 11. or.).

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

- a) ingurumenari dagokionez, babes-maila handi eta uniformeari eustea;
- b) merkantzien, pertsonen eta zerbitzuen zirkulazio askea ahalbidetzea;
- c) arautze- eta ziurtapen-prozesuen errentagarritasuna sustatzea eta estatu barnean nahiz Europan bikoitz daitezten eragozteak;
- d) estatu kideei laguntza ematea betebeharrak Chicagoko Hitzarmenaren arabera bete ditzaten. Hitzarmenaren baterako interpretazioa eta bere xedapenen aplikazio uniformeak egiteko aukera emango duen oinarria emango zaie, eta, Erregelamendu honetan eta Erregelamendua aplikatzeko taxututako arauetan, xedapen horiek modu egokian aintzat hartzen direla bermatuko da.
- e) mundu guztian, abiazio zibilaren segurtasunari dagozkion arauak buruzko Erkidegoko ikuspegiak sustatzea. Horretarako, beste herrialde batzuekin eta nazioarteko erakundeekin lankidetzak egokian arituko da.
- f) abiazioaren barne-merkatuan parte hartzen duten agente guztiei baldintza berberak eskaintzea.

3. Honako hauek izango dira 1 eta 2. paragrafoetan aurreikusten diren helburuak betetzeko erabiliko diren bitartekoak:

- a) beharrezkoak diren egintza guztiak uniformeki prestatzea, hartzea eta aplikatzea;
- b) Erregelamendu honen eta Erregelamendua aplikatzeko hartutako xedapenen arabera produktuei, langileei eta erakundeek onartutako ziurtagiriak, lizentziak, onarpenak edo bestelakoak aitortzea, betekizun gehigarriak gabe.
- c) Aire Segurtasuneko Europako Agentzia independente bat sortzea (aurrerantzean, «Agentzia»);
- d) abiazio estatu-agintariak eta Agentziak beharrezkoak diren egintza guztiak uniformeki aplikatzea, bakoitzari dagozkion eskumenen ildotik.

3. artikulua

Definizioak

Erregelamendu honetan kontzeptuek esanahi hauek dituzte:

- a) «etengabeko ikuskapena»:

ziurtagiri bat egiteko bete diren baldintzak balio-epean zehar oraindik betetzen direla egiaztatzeko burutu beharko diren zereginak, eta beste edozein babes-neurri hartzea;

- b) «Chicagoko Hitzarmena»: Nazioarteko Abiazio Zibilari buruzko Hitzarmena eta hari atxikitako eranskinak (1944ko abenduaren 7an Chicagon sinatu zen).

- c) «produktua»: aireontzi bat, motor bat edo helize bat;

d) «osagaiak eta ekipamenduak»: hegaldian doan aireontzi bat maneiatzeko edo kontrolatzeko erabiltzen den edo horretarako erabiltzera bideratuta dagoen eta aireontzi batean instalatuta edo muntatuta dagoen edozein instrumentu, gailu, mekanismo, tresna edo osagarri, komunikazioetarako ekipamendua barne. Fuselajearen, motorren edo helizearen osagaiak ere barne daude;

- e) «ziurtapena»: produktu, osagai edo ekipamendu batek, erakunde edo pertsona batek aplikagarriak diren betekizunak betetzen dituela aitortzeko edozein modu, Erregelamendu honetako xedapenak eta hura aplikatzeko xedapenak barne, baita betetze hori ziurtatzen duen dagokion ziurtagiria egitea ere.

216/2008 (EE) erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 79/1, 2008/3/19koa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

f) «organismo gaitua»: Agentziak edo aeronautikako estatu-agintari batek, bere kontrol eta erantzukizunaren baitan, ziurtapen-lan jakin bat esleitzeko hauta dezakeen organismoa;

g) «ziurtagiria»: ziurtapenaren ondorioz egindako baimena, lizentzia edo bestelako agiria;

h) «operadorea»: aireontzi bat edo gehiago ustiatu nahi dituen edozein pertsona fisiko edo juridiko;

i) «merkataritzako operazioak»: zerbitzu publiko modura, ordainsari baten edo bestelako ekonomia-kontraprestazio baten truk aireontzi bat ustiatzea, edo, zerbitzu publikoa ez denean, operadore eta bezero baten arteko kontratu bidez egiten dena, bezeroak operadorea kontrolatzeko ahalmenik izan gabe;

j) «propultsatutako aireontzi konplexua»:

i) hegazkin bat:

— aireratzeko gehienezko masa egiaztatua 5 700 kg-koa edo handiagoa duena, edo

— 19 bidaiari-eserleku baino gehiagorentzako gehienezko konfigurazioa ziurtatzen duen agiria duena, edo

— bi pilotuz osatutako gutxieneko eskifaiarekin jarduteko ziurtagiria duena, edo

— turborreaktore bat edo turbohelize motor bat baino gehiago duena, edo

ii) helikoptero bat: — aireratzeko gehienezko masa egiaztatua 3 175 kg-koa edo handiagoa duena, edo

— 9 bidaiari-eserleku baino gehiagorentzako gehienezko konfigurazioa ziurtatzen duen agiria duena, edo

— bi pilotuz osatutako gutxieneko eskifaiarekin jarduteko ziurtagiria duena, edo

iii) errore baskulagarria duen aireontzia;

k) «entrenamendurako hegaldien simulazio-gailua»: Lurrean egonik, hegaldi bat simulatzen duen edozein gailu; hegaldien simulazioak, hegaldien entrenamenduak egiteko gailuak, nabigazio- eta hegaldi-prozeduretan trebatzeko entrenatzaileak eta instrumentu bidez hegaldian entrenatzeko oinarrizko gailuak barneratzen dira;

l) «gaikuntza»: lizentzia batean jasotzen diren adierazpenak, eskumenei, baldintza bereziei edo lizentzia horri dagozkion murriztapenei buruzkoak.

II. KAPITULUA

FUNTSEZKO BETEKIZUNAK

4. artikulua

Oinarrizko printzipioak eta aplikagarritasuna

1. Erregelamendu honetan xedatutakoa beteko dute aireontziek, edozein produktu, osagai edo ekipamendu instalatuta dutenak, eta:

216/2008 (EE) erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 79/1, 2008/3/19koa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

- a) erakunde batek diseinatu edo fabrikatu baditu (erakunde horren segurtasuna Agentziak edo estatu kide batek ikuskatzen duela) edo
 - b) estatu kide batean matrikulatuta badaude, baldin eta haien segurtasunari dagokion arauzko ikuskapena beste herrialde bati laga ez bazaio eta Erkidegoko operadore batek erabiltzen ez baditu, edo
 - c) beste herrialde batean matrikulatuta badaude eta edozein estatu kide ikuskatzen duen operadore batek erabiltzen baditu, edo sartu-irtenak Erkidegoaren barnean eginez edo lurralde barneko ibilbideak eginez ezarritako operadore batek edo Erkidegoan bizi den operadore batek erabiltzen baditu, edo
 - d) beste herrialde batean edo segurtasun-arloko arauzko ikuskapena beste herrialde bati laga dion estatu kide batean matrikulatuta badaude eta sartu-irtenak Erkidegoaren barnean eginez edo lurralde barneko ibilbideak eginez beste herrialde bateko operadore batek erabiltzen baditu,
2. Lehenengo paragrafoan, b), c) edo d) idatz-zatietan aipatzen diren aireontzien operazioetan parte hartzen duten langileek Erregelamendu honetan aipatzen direnak bete beharko dituzte.
 3. Lehenengo paragrafoan, b), c) edo d) idatz-zatietan aipatzen diren aireontzien operazioek Erregelamendu honetan ezarritakoari jarraituko diete.
 4. II. eranskinean aipatzen diren aireontziei ez zaie 1. paragrafoa aplikatuko.
 5. II. eranskinean aipatzen diren aireontziei ez zaizkie 2 eta 3. paragrafoak aplikatuko, a) idatz-zatian, ii) hitz-tartean aipatzen diren aireontzien salbuespenarekin. Halaber, d) eta h) idatz-zatietan aipatzen direnak ere salbuetsi egingo dira, baldin eta merkataritzako aire-garraiorako ustiatzen badira.
 6. Erregelamendu honek ez du eraginik izango, nazioarteko hitzarmenetan, bereziki, Chicagoko Hitzarmenean zehazten diren herrialdeetako eskubideei dagokienez.

5. artikulua

Aire-nabigagarritasuna

1. 4. artikuluan, 1. paragrafoan, a), b) eta c) idatz-zatietan aipatzen diren aireontziek I. eranskinean aire-nabigagarritasunari dagokionez ezartzen diren funtsezko betekizunak beteko dituzte.
2. Jarraian adierazten den moduan finkatuko da 4. artikuluan, 1. paragrafoan, b) idatz-zatian aipatzen diren aireontziak eta haietan instalatutako produktu, osagai eta ekipamenduak arauekin bat datozen ala ez:
 - a) produktuek mota-ziurtagiria izango dute. Ziurtagiri hori eta hari egindako aldaketei dagozkien ziurtapenak, mota-ziurtagiri osagarriak barne, eskatzaileak produktuak ziurtapen-baldintza jakin batzuk betetzen dituela frogatu ostean egingo dira, betiere, produktua modu seguruan erabiltzea eragozten duen xehetasun edo ezaugarririk ez badu. Baldintza horiek, lehenengo paragrafoan aipatzen diren funtsezko betekizunak betetzen direla ziurtatzekoak, 20. artikuluan zehazten dira. Mota-ziurtagiriak produktua bera eta bertan instalatutako osagai eta ekipamendu guztiak ziurtatuko ditu.
 - b) osagaiek eta ekipamenduek ziurtagiri zehatzak izan ditzakete aire-nabigagarritasunari dagozkion zehaztapenak betetzen dituztela frogatzen denean. Zehaztapen horiek lehenengo paragrafoan adierazten diren funtsezko betekizunekin bat datozela ziurtatzeko ezartzen dira.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

c) aireontzi bakoitzarentzat aire-nabigagarritasunaren ziurtagiri bat egiten da, mota-ziurtagirian onartutako ereduaren diseinura egokitzen dela eta dagozkion agiri, ikuskapen eta frogak aireontzia modu seguruan erabiltzeko baldintzetan aurkitzen dela egiaztatzen dutela frogatzen denean. Aire-nabigagarritasunaren ziurtagiria baliozkoa izango da, baldin eta bertan behera, baliogabetuta edo ondorioz gabe geratzen ez bada, eta, betiere, I. eranskineko 1. paragrafoan, d) idatz-zatian, aire-nabigagarritasuna mantentzeko ezartzen diren funtsezko betekizunak eta 5. paragrafoan adierazten diren aplikazio-xedapenak betetzen baditu.

d) produktuen, osagaien eta ekipamenduen mantentze-lanak egiteaz arduratzen diren erakundeek beren eskumenekin lotutako betebeharrak betetzeko gaitasuna eta bitartekoak dituztela frogatu behar dute. Bestelakorik adostu ez bada, erakundeak egindako onarpen baten bidez aitortu beharko dira gaitasun eta bitarteko horiek. Onarpenaren klausuletan zehaztuko dira onartutako erakundeari aitortu zaizkion eskumenak eta onarpenaren irismena.

d) produktuak, osagaiak eta ekipamenduak diseinatzeaz eta fabrikatzeaz arduratzen diren erakundeek beren eskumenekin lotutako betebeharrak betetzeko gaitasuna eta bitartekoak dituztela frogatu behar dute. Bestelakorik adostu ez bada, erakundeak egindako onarpen baten bidez aitortu beharko dira gaitasun eta bitarteko horiek. Onarpenaren klausuletan zehaztuko dira onartutako erakundeari aitortu zaizkion eskumenak eta onarpenaren irismena.

Horrez gain:

f) mantentze-lanak burutu ostean produktu, osagai edo ekipamendu bat ontzat emateko ardura duten langileei, horretarako ziurtagiri bat izatea eskatu ahal zaie (langileen ziurtagiria);

g) mantentze-lanetan prestakuntza eskaintzen duten zentroyen gaitasuna, f) idatz-zatian aipatzen diren ziurtagiriak egiteko eskumenari dagozkion betebeharrak betetzekoa, onarpen bat eginez aitortu ahal izango da.

3. 4. artikuluan, 1. paragrafoan, a) idatz-zatian aipatzen diren aireontziek eta haietan instalatutako produktu, osagai eta ekipamenduek artikuluko honetako 2. paragrafoan, a), b) eta e) idatz-zatietan agintzen dena bete beharko dute.

4. 1 eta 2. paragrafoetan xedatutakoa gorabehera:

a) aireontziak, segurtasun-baldintzak gordez, hegaldi simple bat egiteko gaitasuna duela frogatzen denean, hegaldibaimen bat egin ahal izango da. Baimenari dagozkion murriztapenak ezarriko zaizkio, bereziki, hirugarren baten segurtasuna bermatzeko;

b) 2. paragrafoan, a) idatz-zatian ezarritakoaren arabera ziurtagiririk jaso ez duten aireontziei aire-nabigagarritasuneko ziurtagiri mugatu bat egin dakieke. Kasu horretan, aireontzi horrek aire-nabigagarritasuneko zehaztapan espezifikoak betetzen dituela eta, 1 paragrafoan aipatzen diren funtsezko betekizunak guztiz bete ez arren, aireontzi hori erabiltzerakoan segurtasun-maila egokia bermatuko dela frogatu beharko da. 5. paragrafoan aipatzen diren aplikazio-neurrien arabera finkatuko da zein diren ziurtagiri mugatu bat nahiz erabilpenari dagozkion murriztapenak jaso ditzaketen aireontziak;

c) Aire-nabigagarritasuneko ziurtagiri mugatu bat jaso dezaketen kategoria bereko aireontzien kopuruak justifikatzen duenean, mota-ziurtagiri mugatu bat egin ahal izango da eta ziurtapen-baldintza egoki batzuk ezarriko dira. Artikulu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurriak (artikulua bera ere osatzen dute), 65. artikuluan, 4. paragrafoan agindutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera hartuko dira.

4. Neurri horiek zehaztuko dituzte, bereziki:

a) produktu jakin bati aplikatu ahal zaizkion oinarriak ezartzeko eta eskatzaile bati jakinarazteko baldintzak;

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

- b) osagai eta ekipamenduetan aplikatu ahal diren aire-nabigagarritasunari dagozkion xehetasunezko zehaztapenak ezartzeko eta eskatzaile bati jakinarazteko baldintzak;
- c) ziurtagiri mugatua jaso dezaketen aireontzietan aplikatu ahal diren aire-nabigagarritasunari dagozkion zehaztapenak ezartzeko eta eskatzaile bati jakinarazteko baldintzak;
- d) produktuen aire-nabigagarritasunaren mantentze-lanak bermatzeko nahitaezkoa den informazioa taxutzeko eta zabaltzeko baldintzak;
- e) jarraian adierazten direnak egiteko, mantentzeko, aldatzeko, bertan behera uzteko edo atzera botatzeko baldintzak: mota-ziurtagiriak, mota-ziurtagiri mugatuak, mota-ziurtagirietan sartu beharreko aldaketen onarpena, aire-nabigagarritasuneko ziurtagiri indibidualak, aire-nabigagarritasuneko ziurtagiri mugatuak, hegaldi-baimenak eta produktuen, osagaien edo ekipamenduen ziurtagiriak, honako hauek ere barne:
 - i) ziurtagiri horien baliozkotasun-epeei buruzko baldintzak, eta baliozkotasun-epe bat finkatu den kasuetan, ziurtagiriak berritzeko baldintzak,
 - ii) hegaldi-baimenen onarpenean aplika daitezkeen murriztapenak. Murriztapen horietan, honako elementu hauek islatu beharko dira, besteak beste:
 - hegaldiaren helburua,
 - hegaldian erabilitako aire-espazioa,
 - hegaldiko eskifaiaren prestakuntza,
 - hegaldiko eskifaiako kide ez diren pertsonen garraioa,
 - iii) aire-nabigagarritasuneko ziurtagiriak eta hari lotutako murriztapenak jaso ditzaketen aireontziak,
 - iv) mantentze-lanak ziurtatzen dituen langile izateko jaso beharreko gutxieneko prestakuntza-programa, 2. paragrafoan, f) idatz-zatian ezartzen dena betetzea bermatzeko,
 - v) pilotu izateko eta ogibide horrekin lotutako simulatzaileak maneiatzeko kualifikazioa eskuratzeko jaso beharreko gutxieneko prestakuntza-programa, 2. paragrafoan, f) idatz-zatian ezarritakoa betetzen dela bermatzeko,
 - vi) gutxieneko ekipamenduari dagozkion maisu-zerrenda, komeni denaren arabera, eta operazio jakin batzuetarako aire-nabigagarritasunari dagozkion zehaztapen gehigarriak, 8. artikuluan ezartzen dena betetzea bermatzeko;
- f) 2. paragrafoko d), e) eta g) idatz-zatien arabera erakundeek luzatu beharreko onarpena egiteko, mantentzeko, aldatzeko, bertan behera uzteko edo atzera botatzeko baldintzak, eta onarpen horiek eskatu behar ez izateko bete beharreko baldintzak;
- g) 2. paragrafoko f) idatz-zatiaren arabera eskatzen diren langileen ziurtagiriak egiteko, mantentzeko, aldatzeko, bertan behera uzteko edo atzera botatzeko baldintzak;
- h) ziurtagirien titularren betebeharrak;
- i) 2 edo 4. paragrafoen xedapenetan aipatzen ez diren eta lehenengo paragrafoan aipatzen diren aireontziek funtsezko betekizunak betetzen dituztela frogatzeko modua.
- j) 4. artikuluan, 1. paragrafoan, c) idatz zatian aipatzen diren aireontziek funtsezko betekizunak betetzen dituztela frogatzeko modua.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

6. 5. paragrafoan ezarritako aplikazio-xedapenak arautzerakoan, Batzordea honako hauetaz arduratuko da bereziki:

- a) teknikaren egungo egoera eta aire-nabigagarritasunerako praktika egokienak islatzeaz;
- b) mundu guztiko aireontzien zerbitzuan eskuratutako esperientzia eta aurrerapen zientifikoa eta teknikoa aintzat hartzeaz;
- c) istripu eta gorabehera larrien arrazoiak zehaztu ostean, berehalako erantzuna emateaz;
- d) 4. artikuluan, 1. paragrafoan, c) idatz-zatian aipatzen diren aireontziei estatu kideek, Abiazio Zibilaren Nazioarteko Erakundeko (OACI) kide diren aldetik, beren gain hartutako betebeharrekin bateragarriak ez diren betekizunak ez ezartzeaz.

6. artikulua

Ingurumenaren babeserako funtsezko betekizunak

1. Produktuak, osagaiak eta ekipamenduak 2005eko azaroaren 24tik aurrera aplikatu daitezkeen Chicagoko Hitzarmeneko 16. eranskinean, I. liburukian 8. zuzenketa eta II. liburukian, 5. zuzenketa barneratzen diren ingurumenaren babeserako betekizunetara egokituko dira, 16. eranskineko gehigarriak salbuetsita.

2. Lehenengo paragrafoan aipatzen diren betekizunetan funtsezkoak ez diren elementuak, hainbatetan aldatzen den Chicagoko Hitzarmenera eta bertako eranskinetara egokitzeko neurriak 65. artikuluan, 5. paragrafoan agindutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera hartuko dira, egokitzapen horiek Erregelamendu honen irismena areagotzen ez duten neurrian. Aurrez aipatutako eranskin horiek Erregelamendu hau onartu ondoren sartuko dira indarrean eta estatu kide guztiek aplikatu beharko dituzte.

3. Lehenengo paragrafoan aipatzen diren betekizunetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurriak (betekizunak ere osatzen dituzte), hala badagokio, 1. paragrafoan aipatutako gehigarrietako edukia baliatuz, 65. artikuluan, 5. paragrafoan agindutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera hartuko dira.

7. artikulua

Pilotuak

1. 4. artikuluan, 1. paragrafoan, b) eta c) idatz-zatietan aipatzen diren aireontziak gidatzen dituzten edo entrenamendurako hegaldien simulazio-gailuak erabiltzen dituzten pilotuek, eta pilotu horien prestakuntzan, frogetan, egiaztapenean edo mediku-azterketan parte hartzen duten pertsonak eta erakundeak III. eranskinean ezartzen diren «funtsezko betekizunak» bete beharko dituzte.

2. Pertsona batek pilotu lanak egiteko, operazio horretarako egokiak diren lizentzia baten eta mediku-ziurtagiri baten titular izan behar du, prestakuntza burutzen ari diren pertsonak salbuetsita.

Hurrengo funtsezko betekizunak betetzen direla bermatzeko ezartzen diren arauak betetzen dituzten pertsonak soilik egingo zaie lizentzia: III. eranskinean adierazten diren ezagutza teorikoak, gaitasun praktikoak, hizkuntza-ezagutza eta esperientzia.

III. eranskinean adierazitako gaitasun fisikoari dagozkion betekizunak betetzen direla bermatzeko ezartzen diren arauak betetzen dituzten pertsonak soilik egingo zaie mediku-ziurtagiria. Mediku-ziurtagiri hori aireko mediku aztertzaileek edo aeronautikako mediku-zentroek egin dezakete.

Hirugarren lerrokadan xedatutakoa gorabehera, aisiarako pilotuaren lizentzien kasuan, barne-zuzenbideak hala onartzen badu, eskatzailearen historia klinikoa nahikoa xeheatasunez ezagutzen duen medikuntza orokorreko mediku

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

batek aireko mediku aztertzaile lanak egin ditzake, 65. artikuluan, 3. paragrafoan agindutako prozedurari jarraiki hartutako aplikazio-xedapenen arabera. Aplikazio-xedapen horiek segurtasun-mailari eutsi egiten zaiela bermatuko dute.

Lizentzia horretan eta ziurtagirian pilotuari aitortutako eskumenak, lizentziaren irismena eta mediku-ziurtagiria zehaztu beharko dira.

Bigarren eta hirugarren lerrokadan agertzen diren betekizunak beste herrialde batek (edo bere izenean) egindako lizentzien eta mediku-ziurtagirien bidez onar daitezke, 4. artikuluan, 1. paragrafoan, c) idatz-zatian adierazten den aireontzi-mota gidatzen duten pilotuei dagokienez.

3. Pilotuak prestatzeko erakundeei eta aeronautikako medikuntza-zentroeiei lizentziak eta mediku-ziurtagiriak egiteko ahalmena esleitu zaie. Eskumen horrekin lotutako betebeharrak betetzeko duten gaitasuna onarpen bat eginez aitortu beharko dute.

III. eranskinean adierazitako funtsezko betekizunak betetzen direla bermatzeko ezartzen diren arauak betetzen dituztenean emango zaie onarpena pilotuak prestatzeko erakundeei eta aeronautikako medikuntza-zentroeiei.

Onarpenarekin esleitzen diren eskumenak onarpenean bertan adierazi beharko dira.

4. Pilotuak prestatzeko erabiltzen den entrenamendurako hegaldien simulazio-gailu orok ziurtagiria izan beharko du. Gailuak, III. eranskinean adierazten denaren arabera, funtsezko betekizunak betetzen direla bermatzeko ezartzen diren arauak betetzen dituela frogatzen denean egingo da ziurtagiria.

5. Hegaldirako prestakuntza edo hegaldien simulazioetan prestakuntza emateaz edo pilotuaren egokimena ebaluatzeaz arduratzen den pertsona oro eta aireko mediku aztertzaile oro, dagokion ziurtagiriaren titular izan beharko da. Pertsona interesdunak, III. eranskinean adierazten denaren arabera, funtsezko betekizunak betetzen direla bermatzeko ezartzen diren arauak betetzen dituela frogatzen denean egingo da ziurtagiria. Ziurtagiriarekin emandako eskumenak ziurtagirian bertan adierazi beharko dira.

6. Artikulu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurri horiek (artikulu bera ere osatzen dute) 65. artikuluan, 4. paragrafoan agindutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera hartu behar dira. Neurri horietan zehaztuko dira, bereziki:

- a) pilotu-lizentzien gaikuntzak eta egingo diren jarduera-mota bakoitzarentzat egokiak diren mediku-ziurtagiriak;
- b) lizentziak, lizentzien gaikuntzak, mediku-ziurtagiriak, 2, 3, 4 eta 5. paragrafoetan aipatzen diren onarpen eta ziurtagiriak egiteko, mantentzeko, aldatzeko, mugatzeko, bertan behera uzteko edo atzera botatzeko baldintzak, eta ziurtagiri eta onarpen horiek eskatu behar ez izateko baldintzak.
- b) lizentziatako titularren eskumen eta erantzukizunak, lizentzien gaikuntzak, mediku-ziurtagiriak, onarpenak eta ziurtagiriak, 2, 3, 4 eta 5. paragrafoetan aipatzen direnak.
- d) indarrean dauden aireko pilotu-lizentzia eta mekanikari-lizentzia nazionalak pilotu-lizentzia bilakatzeko baldintzak, eta, halaber, estatuko mediku-ziurtagiriak eskuarki aitortutako mediku-ziurtagiri bilakatzeko baldintzak;
- e) beste herrialde batzuen lizentziak onartzeko baldintzak, 12. artikuluan arabera adostutako alde-biko akordioetan ezartzen denaren kalterik gabe;
- f) ii) hitz-tartean, a) idatz-zatian eta II. eranskinean d) eta f) idatz-zatietan aipatzen diren aireontzietan dagokienez, pilotuek merkataritzako aire-garraioan haiek erabiltzen dituztenean, III. eranskinean adierazitako funtsezko betekizunak betetzeko modua.

7. 6. paragrafoan aipatzen diren aplikazio-neurriak arautzerakoan, bertan teknikaren egoera islatzeaz arduratuko da Batzordea, eta pilotuen prestakuntza-arloko praktika egokienak eta aurrerapen zientifiko eta teknikoak ere barneratuko ditu.

Neurri horietan, Chicagoko Hitzarmenak eskatzen dituen pilotu-lizentzia eta gaikuntza-mota guztiak egiteko xedapenak ere barneratuko dira, eta, halaber, merkataritzakoak ez diren jarduerak burutzen dituzten aisiarako pilotu-lizentziak, aireratzeko gehieneko masa egiaztatua 2.000 kg-koa edo txikiagoa duen aireontzi bat erabiltzen denean eta 3. artikuluan, j) idatz-zatian aipatzen diren irizpideak betetzen ez dituztenean.

8. artikulua

Aire-operazioak

1. 4. artikuluan, 1. paragrafoan, b) eta c) idatz-zatietan aipatzen diren aireontziek IV. eranskinean ezartzen diren funtsezko betekizunak beteko dituzte.

2. Aplikazio-xedapenetan bestelakorik esaten ez bada, merkataritzako operazioak egiten dituzten operadoreek beren eskumenekin lotutako betebeharrak betetzeko gaitasuna eta bitartekoak dituztela erakutsiko dute.

Gaitasun eta bitarteko horiek ziurtagiri bat eginez aitortuko dira. Ziurtagirian operadoreari eman zaizkion eskumenak eta operazioen irismena agertuko dira.

3. Aplikazio-xedapenetan bestelakorik esaten ez bada, propulsatutako aireontzi konplexuekin merkataritzakoak ez diren operazioak egiten dituzten operadoreek aipatutako aireontziaren operazioarekin lotutako betebeharrak betetzeko gaitasunaren eta bitartekoen jabe direla aitortuko dute.

4. 4. artikuluan, 1. paragrafoan, b) eta c) idatz-zatietan aipatzen diren aireontziek IV. eranskinean ezartzen diren funtsezko betekizunak beteko dituzte. Merkataritzako operazioetan parte hartzen dutenek, 1.1005 OPSko III. eranskinean, O paragrafoan, d) idatz-zatian hasiera batean ezartzen den ziurtagiria izan beharko dute, Kontseiluaren ⁽¹⁾ 3922/91 (EEE) Erregelamendua aldatzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006ko abenduaren 12ko 1899/2006 (EE) Erregelamenduan agertzen denari jarraiki; estatu kideak hala erabakita, ziurtagiria onetsitako operadore nahiz prestakuntza-zentroek egin dezakete.

5. Artikulu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurri horiek (artikulua bera ere osatzen dute) 65. artikuluan, 4. paragrafoan agindutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera hartu behar dira. Neurri horietan zehaztuko dira, bereziki:

a) IV. eranskinean ezartzen diren funtsezko betekizunen arabera aireontzi bat gidatzeko baldintzak;

b) 2. paragrafoan aipatzen diren ziurtagiriak egiteko, mantentzeko, aldatzeko, mugatzeko, bertan behera uzteko edo atzera botatzeko baldintzak, eta ziurtagiriaren ordean operadorearen gaitasunari eta bitartekoei buruzko adierazpen bat aurkeztu ahal izateko baldintzak, aireontzia gidatzeari dagozkion betebeharrak betetzeko.

c) ziurtagirien titularren eskumenak eta betebeharrak;

d) 3. paragrafoan aipatzen diren operadoreek bertan ezartzen den adierazpena egiteko bete behar dituzten baldintzak eta jarraitu behar dituzten prozedurak, eta, halaber, operadore horiek ikuskatzeko baldintzak eta prozedurak, eta adierazpen horren ordean gaitasuna eta bitartekoak frogatu ahal izateko baldintzak. Gaitasun eta bitarteko horiek ziurtagiria eginez aitortzen diren eskumenekin lotutako betebeharrak betetzekoak izango dira.

(1) L 377 EO, 2006.12.27koa, 1. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

e) 4. paragrafoan aipatzen den hegazkineko laguntzailearen ziurtagiria egiteko, mantentzeko, aldatzeko, mugatzeko, bertan behera uzteko edo atzera botatzeko baldintzak;

f) segurtasunaren mesedetan, operazio baten baldintza jakin batzuk debekatzeko, mugatzeko edo betearazteko baldintzak;

g) ii) hitz-tartean, a) idatz-zatian eta II. eranskinean d) eta h) idatz-zatietan aipatzen diren aireontziei dagokienez, merkataritzako aire-garraiorako erabiltzen direnean, IV. eranskinean adierazitako funtsezko betekizunak betetzeko izango duten modua.

6. 5. paragrafoan aipatzen diren aplikazio-neurrietan:

— teknikaren egungo egoera eta aire-operazioen arloko praktika egokienak islatuko dira;

— operazio-motak zehaztuko dira eta aintzat hartuko da dagozkion betekizun eta betetze-frogak operazioen konplexutasunaren eta arriskuaren arabera izatea.

— mundu guztiko aireontzien zerbitzuan eskuratutako esperientzia eta aurrerapen zientifikoa eta teknikoa aintzat hartuko dira,

— hegazkin bidezko aire-garraioari dagokionez, eta aurreko marratxoan adierazitakoaren kalterik gabe, 3922/91 (EEE) Erregelamenduko III. eranskinean zerrendatzen diren arau teknikoak eta administrazio-prozedurak abiapuntutzat hartuz garatuko dira hasiera batean.

— arrisku-ebaluazio batean oinarrituko dira eta operazioaren eskala eta irismena kontuan hartuta ezarriko dira,

— istripu eta gorabehera larrien arrazoiak zehaztu ostean, aintzat hartuko da berehalako erantzuna ematea,

— 4. artikuluan, 1. paragrafoan, c) idatz-zatian aipatzen diren aireontziei dagokienez, ez zaie Abiazio Zibilaren Nazioarteko Erakundeak (OACI) bere estatu kideei ezarritako betekizunekin bateraezinak diren betekizunik ezarriko.

9. artikulua

Beste herrialde bateko operadore batek Erkidegoan sartu-irtenak egiteko edo bere lurraldean jarduteko erabilitako aireontziak

1. 4. artikuluan, 1. paragrafoan, d) idatz-zatian aipatzen diren aireontziek eta, halaber, bertako eskifaiak eta aireontzi horiekin gauzatzen diren operazioek aplikatu ahal zaizkien OACIren arauak beteko dituzte. Horrelako araurik egon ezean, aireontziek eta haiekin egiten diren operazioek I, III eta IV. eranskinetan adierazten diren betekizunak beteko dituzte, betiere, nazioarteko hitzarmenen arabera, beste herrialdeetako eskubideekin kontraesankorrak ez badira.

2. 1. paragrafoan aipatzen diren aireontziak erabiliz burutzen diren merkataritzako operazioetako operadoreek, 1. paragrafoan aipatzen diren betekizunak bete ahal izateko gaitasuna eta bitartekoak dituztela erakutsiko dute. Lehenengo lerrokadan aipatzen den betekizuna beste herrialde batek (edo bere izenean) egindako ziurtagiriak onartuz bete daiteke.

Lehenengo lerrokadan aipatzen diren gaitasunak eta bitartekoak baimen bat eginez aitortu beharko dira. Baimen horretan operadoreari esleitutako eskumenak eta operazioen irismena agertu beharko dira.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

3. Propulsatutako aireontzi konplexuekin (1. paragrafoan aipatzen diren aireontziak erabiliz) merkataritzakoak ez diren operazioak egiten dituzten operadoreei, aireontzi horien erabilpenarekin lotutako betebeharrak betetzeko gaitasunen eta bitartekoen jabe direla azaltzen duen adierazpena eskatu ahalko zaie.

4. Artikulu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurri horiek (artikulu bera ere osatzen dute) 65. artikuluan, 4. paragrafoan agindutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera hartu behar dira. Neurri horietan zehaztuko dira, bereziki:

a) OACI aire-nabigagarritasuneko ziurtagiri arrunt bat ez duten eta 4. artikuluan, 1. paragrafoan d) idatz-zatian aipatzen diren aireontziak edo OACI lizentzia estandar baten titular ez diren eskifaia-kideak Erkidegoan sartzea edo Erkidegotik ateratzea baimendu ahal izateko modua.

b) 1. paragrafoan ezarritakoaren arabera aireontzi bat gidatzeko baldintzak;

c) 2. paragrafoan aipatzen den operadorearen baimena egiteko, mantentzeko, aldatzeko, mugatzeko, bertan behera uzteko edo atzera botatzeko baldintzak, matrikulazioa egin duen Estatuak edo operadorearen Estatuak egindako ziurtagiriak kontuan hartuz, 2111/2005 (EE) Erregelamenduaren edo bertako aplikazio-xedapenen kalterik gabe.

d) ziurtagirien titularren eskumenak eta betebeharrak;

e) 3. paragrafoan aipatzen diren operadoreek bertan ezartzen den adierazpena egiteko bete behar dituzten baldintzak eta jarraitu behar dituzten prozedurak, eta, halaber, operadore horiek ikuskatzeko baldintzak eta prozedurak;

f) segurtasunaren mesedetan, operazio baten baldintza jakin batzuk debekatzeko, mugatzeko edo betearazteko baldintzak, 22. artikuluan, 1. paragrafoan ezarritakoaren arabera.

5. 4. paragrafoan ezarritako aplikazio-xedapenak arautzerakoan, Batzordea bereziki arduratuko da:

a) komeni den heinean, OACI gomendatutako jarduerak eta OACIren orientazio-agiriak jarraitzeaz;

b) 4. artikuluan, 1. paragrafoan, b) idatz-zatian adierazten diren aireontziei eta aireontzi horien operadoreei eskatutako betekizunez landa, bestelako betekizunik ez eskatzeaz;

c) hala dagokionean, aldarrikatutako aplikazio-arauak 5. artikuluko 5. paragrafoan eta 8. artikuluko 5. paragrafoan ezarritakoaren arabera aplikatzeaz;

d) kasu guztietan, baimenak eskuratzeko prozedura errazak, proportzionalak, ekonomikoak eta efizienteak ezartzeaz eta betetze-frogak operazioen konplexutasunaren eta arriskuen arabera izateaz. Prozedura horretan kontuan hartuko da, bereziki:

i) OACIren Segurtasun Operazionalak Behatzeko Auditoriako Programa Unibertsalak emandako emaitza,

ii) pistan egiten diren ikuskapenetatik eta atzerriko aireontzien segurtasun operazionalerako ebaluazioen erregistroetatik eskuratutako informazioa,

iii) eragindako operadoreari dagokionez, segurtasun operazionalari buruz aitortutako bestelako informazioa.

10. artikulua

Ikuskapena eta gauzatzea

1. Estatu kideak, Batzordea eta Agentzia lankidetzan arituko dira, Erregelamendu honen baitako produktu, pertsona eta erakunde guztiek bertako xedapenak eta aplikazio-xedapenak betetzen dituztela bermatzeko.

216/2008 (EE) erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 79/1, 2008/3/19koa)

2. Lehenengo paragrafoa aplikatze aldera, estatu kideek, egin dituzten ziurtagiriak ikuskatzeaz gain, hainbat ikerketa gauzatuko dituzte, pista-ikuskapenak barne, eta arau-haustea gertatzen ez jarraitzeko beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte; horien artean, aireontzi bat lurrean geldiaraztea.

3. 1. paragrafoa aplikatze aldera, Agentziak ikerketak egingo ditu 24. artikuluko 2. paragrafoari eta 55. artikuluari jarraiki.

4. Estatu kideek, Batzordeak eta Agentziak hautemandako arau-hausteei buruzko informazioa trukatuko dute, eskumeneko agintaritzei dagozkien betearazte-ekintzak hartzen laguntzeko.

5. Artikulu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko neurri horiek (artikulu bera ere osatzen dute) 65. artikuluan, 4. paragrafoan agindutako kontrolaren arautze-prozeduraren arabera hartu behar dira. Neurri horietan zehaztuko dira, bereziki:

a) informazioa jasotzeko, trukatzeko eta zabaltzeko baldintzak;

b) pista-ikuskapenak egiteko baldintzak, sistematikoak barne.

c) Erregelamendu honetako betekizunak edo bertan adierazten diren aplikazio-xedapenak betetzen ez dituen edozein aireontzi lurrean geldiarazteko baldintzak.

11. artikulua

Ziurtagirien onarpena

1. Estatu kideek Erregelamendu honi jarraiki egindako ziurtagiriak onartu egingo dituzte, bestelako betekizun tekniko edo ebaluaziorik gabe. Jatorrizko onarpena xede jakin bat (edo xede jakin batzuk) asetzeko ematen denean, geroago ematen den beste edozein onarpen xede bera (edo berberak) asetzeko baliatuko da.

2. Batzordeak, berezko ekimenari jarraiki edo estatu kideren batek edo Agentziak hala eskatuta, 65. artikuluan, 7. paragrafoan aipatzen den prozedura abiarazi ahal izango du, Erregelamendu honen arabera egindako ziurtagiri bat Erregelamendu horretara eta bertan agertzen diren aplikazio-xedapenetara egokitzen den ala ez ebaztekoa.

Ez-betetzea edo eraginkortasunik gabe betetzea gertatuz gero, Batzordeak dagozkion neurri zuzentzaileak eta babes-neurriak hartzeko eskatuko dio ziurtagiria egin duenari, ziurtagiria mugatzea edo bertan behera uztea, kasu. Horrez gain, Batzordeak estatu kideei erabakiaren berri ematen dien egunetik aurrera, lehenengo paragrafoko xedapenak ez dira aplikatuko ziurtagiri horretan.

3. Batzordeak nahikoa froga duenean ebazteko 2. paragrafoan aipatzen den ziurtagiriaren egileak ez-betetzea edo eraginkortasunik gabeko betetzea zuzentzeko neurri zuzentzaileak hartu dituela eta babes-neurriak beharrezkoak ez direla, lehenengo paragrafoko xedapenak ziurtagiri horretan berriz ere aplikatzea erabakiko du. Xedapen horiek estatu kideei erabakiaren berri ematen zaien egunetik aurrera aplikatuko dira.

4. 5. artikuluko 5. paragrafoan, 7. artikuluko 6. paragrafoan eta 9. artikuluko 4. paragrafoan aipatzen diren aplikazio-neurriak hartzen diren arte, eta 69. artikuluko 4. paragrafoan ezarritakoaren kalterik gabe, Erregelamendu honen arabera egin ezin diren ziurtagiriak aplikatu daitezkeen estatuko arauen arabera egin ahalko dira.

5. 8. artikuluko 5. paragrafoan aipatzen diren aplikazio-neurriak hartzen diren arte, eta 69. artikuluko 4. paragrafoan ezarritakoaren kalterik gabe, Erregelamendu honen arabera egin ezin diren ziurtagiriak beste modu batean egin ahal izango dira: aplikatu daitezkeen estatuko arauak jarraituz, edo, hala badagokio, 3922/ 91 (EEE) Erregelamenduan horretarako ezartzen diren betekizunei jarraituz.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

6. Artikulu honetako xedapenak, 2111/2005 (EE) Erregelamenduaren eta bertako aplikazio-xedapenen kalterik gabeak direla ulertuko da.

12. artikulua

Beste herrialde batzuetako ziurtagirien onarpena

1. Erregelamendu honetan eta bertako aplikazio-xedapenetan ezarritakoa gorabehera, Agentziak edo Estatu kideko abiazio-agintaritzek ziurtagiriak egin ahalko dituzte, beste herrialde bateko aeronautika-agintaritzek egindako ziurtagirietan oinarrituta, Erkidegoaren eta aipatutako beste herrialde horren arteko aitortpenarako akordioetan hitzartutakoari jarraiki.

2. a) Erkidegoak hitzartutako akordiorik egon ezean, estatu kide batek edo Agentziak ziurtagiriak egin ahalko ditu; horretarako, beste herrialde bateko eskumeneko agintaritzek egindako ziurtagirietan oinarrituko dira, estatu kide horren eta beste herrialde horren arteko akordioa aplikatuz, Erregelamendu honetako dagozkion xedapenak indarrean jarri aurretik eta Batzordeari eta gainerako estatu kideei jakinarazi ondotik. Agentziak ere ziurtagiri horiek egin ditzake, edozein estatu kideren izenean, estatu kide horietako baten eta dagokion beste herrialde horren arteko akordioa aplikatuz.

b) Batzordearen aburuz:

— Estatu kide baten eta beste herrialde baten arteko akordioan barneratzen diren xedapenek, Erregelamendu honetan eta bertako aplikazio-xedapenetan zehaztutako segurtasun-maila atzitzen ez badute, edota

— akordioak segurtasunari ez dagozkion arrazoiengatik estatu kideak baztertzen baditu edo beste herrialde batekiko kanpo-politika erkide baten aurkakoa bada, orduan, 65. artikuluan, 2. paragrafoan agindutako prozeduraren arabera, estatu kideari akordioa alda dezala, akordioaren aplikazioa bertan behera utz dezala, edo Tratutuko 307. artikuluari jarraiki akordioa sala dezala eska diezaioke.

c) Estatu kideek akordio horiek salatzeko beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte ahalik eta lasterren, erkidegoaren eta dagokion beste herrialde baten arteko akordioa indarrean jarri ondoren, azken akordio horretan arautzen diren arloei dagokienez.

13. artikulua

Erakunde kualifikatuak

Erakunde kualifikatu bati ziurtapen-zeregin zehatzak esleitzen zaizkionean, Agentzia edo dagokion aeronautikako estatu-agintaria arduratuko da erakunde horrek V. eranskinean ezartzen diren irizpideak betetzen dituela ziurtatzeaz.

14. artikulua

Malgutasuna

1. Erregelamendu honetako xedapenek eta bertako aplikazio-xedapenek ez dute eragotziko estatu kide batek Erregelamendu honetako xedapenen baitako produktu, pertsona edo erakunde batekin lotutako segurtasun-arazo baten aurrean berehalako erantzuna ematea.

Estatuak berehala jakinaraziko dizkie Agentziari, Batzordeari eta gainerako estatu kideei hartutako neurriak eta haien zergatiak.

216/2008 (EE) erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 79/1, 2008/3/19koa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

2. a) Agentziak segurtasun-arazoa 18. artikuluko d) idatz-zatiak esleitzen dizkion eskumenak erabiliz ebatz dezakeen ala ez balioetsiko du. Kasu horretan, dagozkion erabakiak hartuko ditu hilabeteko epearen barruan, lehenengo paragrafoan aipatutako jakinarazpena ematen den egunetik hasita.

b) Agentziak a) idatz-zatiari jarraiki segurtasun-arazoa ezin duela ebatzi ondorioztatzen badu, idatz-zati horretan aipatzen den epearen barruan gomendio bat aurkeztuko du; horretarako, 18. artikuluko b) idatz-zatian, Erregelamendu hau edo bertako aplikazio-xedapenak aldatu behar diren eta jakinarazitako neurriak bere horretan utzi edo kendu egin behar diren aipatzen den atalean, ezarritakoari jarraituko diolarik.

3. Neurri horiek, segurtasun-maila baxuegia izateak edo Erregelamendu honetan edo bertako aplikazio-xedapenetan akatsen bat egoteak haiek aldatu beharra justifikatzen ote duen ebaztekoak eta 1. paragrafoari jarraiki hartutako neurriak aplikatu behar ote diren ebaztekoak, Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko helburua dute (Erregelamendua bera ere osatu dezakete) eta 65. artikuluan, 6. paragrafoan agindutako kontrol-dun arautze-prozedurari jarraituz hartuko dira. Kasu horretan, estatu kide guztiek neurriak aplikatuko dituzte, bidezkoa bada, eta 11. artikuluan ezarritakoa aplikatuko zaie. Aitzitik, neurriak ez daudela justifikatuta ebazten bada, eragindako Estatu kideak atzera botako ditu.

4. Inguruabar operatibo presazko eta ustekabeak edo iraupen mugatuko beharrian operatiboak badaude, estatu kideek salbuespenak onar ditzakete, erregelamendu honetan eta bertako aplikazio-xedapenetan zehaztutako funtsezko betekizunei dagokienez, betiere, horrek segurtasun-mailari kalte egiten ez badio. Salbuespenak errepikakorrak bihurtzen direnean edo bi hilabete baino gehiagoko epeaz onartzen direnean, Agentziari, Batzordeari eta gainerako estatu kideei jakinaraziko die berehala.

5. Estatu kide batek jakinarazitako salbuespenek aplikatu daitezkeen Erkidegoko xedapenek baino murriztapen gutxiago dituzten balioetsiko du Agentziak, eta jakinarazpena egiten denetik hilabeteko epean, gomendio bat aurkeztuko du, 18. artikuluan, b) idatz-zatian ezarritakoari jarraituz, eta hor adieraziko du salbuespen horiek Erregelamendu honetako segurtasun-helburu orokorrekarekin edo Erkidegoko Zuzenbideko beste edozein ararekin bat datozen ala ez.

Salbuespen bat Erregelamendu honetako segurtasun-helburu orokorrekin edo Erkidegoko Zuzenbideko beste edozein ararekin bat ez badator, Batzordeak salbuespena ez baimentzea ebatziko du, 65. artikuluan, 7. paragrafoan agindutako prozeduraren arabera. Kasu horretan, estatu kideak salbuespena baliogabetu egingo du.

6. Beste bitarteko batzuk baliatuz Erregelamendu honetako aplikazio-xedapenak baliatuz eskuratutako babes-maila bera lor badaiteke, estatu kideak aplikazio-xedapen horiek salbuetsiko dituzten onarpenak eman ahal izango ditu, nazionalitatea dela-eta inolako bazterkeriarik egin gabe.

Kasu horietan, estatu kideak onarpen hori ematea proposatzen dela jakinaraziko die Agentziari eta Batzordeari, eta arrazoitu egingo du dagozkion arauari salbuespena ezartzeko beharra, eta babes-maila bera bermatzeko aurreikusten diren baldintzak adieraziko ditu.

7. 6. paragrafoan aurreikusitako jakinarazpena egiten denetik bi hilabeteko epean, Agentziak gomendio bat aurkeztuko du 18. artikuluko b) idatz-zatiaren arabera, proposamena 6. paragrafoan adierazitakoari jarraituz onartzeak paragrafo hartan ezarritako baldintzak betetzen dituen ala ez adierazteko.

Neurri horiek, proposatutako onarpena eman ote daitezkeen ebaztekoak, Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko helburua dute (Erregelamendua bera ere osatzen dute) eta 65. artikuluan, 6. paragrafoan agindutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera hartuko dira, hilabeteko epean, Agentziak egindako gomendioa jasotzen denetik hasita. Kasu horretan, Batzordeak bere erabakiaren berri emango die gainerako estatu

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

kideei. Azken horiek neurri hori aplikatzeko eskumena izango dute. Dagokion neurriari 15. artikuluan adierazten dena aplikatuko zaio.

15. artikulua

Informazio-sarea

1. Batzordeak, Agentziak eta abiazioko estatu-agintariak esku artean duten informazio oro trukatu dute, Erregelamendu hau eta bertan adierazten diren aplikazio-xedapenak aplikatze aldera. Abiazio zibilean gertatzen diren istripu eta gorabeherak ikertzeko edo gertaerak aztertze eskumena duten organismoek informazio hori jaso ahal izango dute.

2. 1049/2001 (EE) Erregelamenduan ezartzen den Batzordearen agiriak behatzeko eskubide publikoaren kalterik gabe, 65. artikuluan, 3. paragrafoan agindutako prozedurari jarraiki, Batzordeak, berezko ekimenez, 1. paragrafoan aipatzen den informazioa interesdunei helarazteko neurriak hartuko ditu. Neurri horiek orokorrak edo zehatzak izan daitezke eta jarraian adierazten diren beharrianak izango dituzte oinarri:

a) pertsona eta erakundeei aire-segurtasuna hobetzeko behar duten informazioa helaraztea;

b) erabiltzaileen helburuak asetzeko beharrezkoa den informazioa baino ez helaraztea, informazio horrek merezi duen konfidentzialtasuna bermatze aldera.

3. Abiazioko estatu-agintariak, haien barne-zuzenbideari jarraiki, 1. paragrafoaren arabera jasotzen duten informazioaren konfidentzialtasuna bermatzeko beharrezko neurriak hartuko dituzte.

4. Segurtasun-maila orokorra jendartera zabaltzeko xedez, Agentziak urtero segurtasunari buruzko txosten bat argitaratuko du. 10. artikuluan, 5. paragrafoan agindutako aplikazio-xedapenak indarrean sartzen direnetik aurrera, txosten horretan, 10. artikuluaaren arabera jasotako informazio guztiaren azterketa bat barneratuko da. Azterketa sinplea eta ulergarria izango da eta arriskuak areagotu diren ala ez islatuko du. Azterketa horretan ez da informazio-iturrien jatorririk aipatuko.

16. artikulua

Informazio-iturrien babesa

1. 15. artikuluan, 1. paragrafoan aipatzen den informazioa pertsona fisiko batek, berariaz, Batzordeari edo Agentziari helarazten dionean, ez da informazio-iturri horren jatorririk aipatuko. Informazioa estatu-agintaritzaren batek helarazten duenean, barne-zuzenbidean ezartzen den babesa emango zaio informazio-iturriari.

2. Zuzenbide penalari dagozkion aplikazio-xedapenen kalterik gabe, estatu kideek ez dute lege-ekimenik abiaraziko premeditaziorik gabeak edo berariazkoak ez diren arau-hausteak direla-eta, baldin eta Erregelamendu honen eta bertako aplikazio-xedapenen bidez izan badute arau-hauste horien berri. Zabarkeria larria bada, ez da arau hori aplikatuko.

3. Zuzenbide penalean aplikagarri diren xedapenen kalterik gabe, eta hartarako Estatu zuzenbidean eta erabileran ezarritako prozedurei jarraiki, estatu kideek bermatuko dute Erregelamendu hau eta bertako aplikazio-xedapenak betez informazioa helarazten duten langileei enpresak ez diela inolako kalterik eragiten. Zabarkeria larria bada, ez da arau hori aplikatuko.

4. Artikulu hau agintari judizialek informazioa eskuratzeari dagokionez estatuko arauetan ezarritakoaren kalterik gabe aplikatuko da.

216/2008 (EE) erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 79/1, 2008/3/19koa)

III. KAPITULUA

AIRE SEGURTASUNeko AGENTZIA EUOPARRA

1. ATALA

Funtzioak

17. artikulua

Agentziaren eraketa eta funtzioak

1. Aire Segurtasuneko Agentzia Europarra sortu da Erregelamendu hau bete dadin.
2. Abiazio zibilaren segurtasuna behar bezala betetzea eta garatzea bermatzeko, Agentziak:
 - a) 1. artikuluan, 1. paragrafoan aipatzen diren lan guztiak burutuko ditu eta horiei buruzko irizpenak igorriko ditu;
 - b) Batzordeari Erregelamendu hau gauzatzeko hartu beharreko neurri guztiak taxutzen lagunduko dio. Xedapen teknikoak badira —bereziki, eraikuntzari, diseinuari eta alderdi operatiboei buruzko xedapenak— Batzordeak ezingo du hartako edukia aldatu, aurrez Agentziarekin lankidetzan aritu gabe. Agentziak Batzordeak zeregin hori burutzeko behar duen laguntza teknikoa, zientifikoa eta administratiboa emango dio.
 - c) beharrezko neurriak hartuko ditu, betiere, Erregelamendu honek edo Erkidegoko aplikatu daitezkeen bestelako arau batek emandako eskumenak errespetatuz;
 - d) bere zereginak betetzeko beharrezkoak diren ikuskapenak eta ikerketak gauzatuko ditu;
 - e) bere eskumen-eremuaren barnean, aplikatu daitezkeen nazioarteko hitzarmenek —bereziki, Chicagoko Hitzarmenak— esleitutako zeregin eta lanak burutuko ditu, estatu kideen izenean.

18. artikulua

Agentziak hartutako neurriak

Hala badagokio, Agentziak:

- a) Batzordeari irizpenak helaraziko dizkio;
- b) Batzordeari gomendioak egingo dizkio, hark 14. artikulua aplikatu dezan;
- c) Erregelamendu hau eta bertako aplikazio-xedapenak aplikatzeko ziurtapenen zehaztapenak egingo ditu, aire-nabigagarritasuneko kodeak eta haiek betetzeko moduko bitartekoak barne, bai eta edozein agiri orientagarri ere;
- d) dagozkion erabakiak hartuko ditu 20, 21, 22, 23, 54 eta 55. artikuluetan aplikatzeko;
- e) 23. artikuluko 1. paragrafoari eta 54. artikuluari jarraiki egindako normalizazio-ikuskapenei dagozkion txostenak igorriko ditu.

19. artikulua

Irizpenak, ziurtapenen zehaztapenak eta agiri orientagarriak

1. Batzordeari oinarrizko printzipioen, aplikagarritasunaren eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren aurrean aurkeztu beharreko funtsezko betekizunen proposamenak taxutzen laguntzeko, eta, halaber, beharrezkoak diren aplikazio-xedapenak hartzen laguntzeko, Agentziak proposamen eta xedapen horiei buruzko proiektuak prestatuko ditu. Agentziak irizpen modura aurkeztuko dizkio proiektu horiek Batzordeari.

2. Agentziak, 52. artikuluari eta Batzordeak hartutako aplikazio-xedapenei jarraiki, honako hauek taxutuko ditu:

a) ziurtapenen zehaztapenak, aire-nabigagarritasuneko kodeak eta haiek betetzeko moduko bitartekoak barne, eta

b) ziurtapen-prozesuan erabiltzeko agiri orientagarriak.

Agiri horietan teknikaren egoera gaurkotuena eta arlo honetako jardun onenak islatuko dira, eta mundu guztiko aireontzien zerbitzuan eskuratutako esperientzia, eta, halaber, aurrerapen zientifikoa eta teknikoa aintzat hartuz eguneratuko dira.

20. artikulua

Aire-nabigagarritasuneko ziurtagiria eta ingurumen-ziurtagiria

1. 4. artikuluan, 1. paragrafoan, a) eta b) idatz-zatietan adierazten diren produktu, osagai eta ekipamenduei dagokienez, Agentziak, hala dagokionean eta Chicagoko Hitzarmenean eta haren eranskinetan zehazten den moduan, diseinuaren egoerari, fabrikazioari eta matrikulazioari dagozkion zereginak eta eginbeharrak burutuko ditu, estatu kideen izenean, diseinua onartzeko xedez. Horretarako:

a) mota-ziurtagiri bat edo hura aldatzea eskatzen zaien produktueterako, mota-ziurtagiriaren oinarriak ezarri eta jakinaraziko ditu. Oinarriek hauek bilduko dituzte: aplika daitekeen aire-nabigagarritasuneko kodea, segurtasun-maila bera onartu zaien xedapenak, eta beharrezkoak diren xehetasuneko zehaztapen teknikoak produktu jakin bateko diseinuaren ezaugarriak direla-eta edo zerbitzuan eskuratutako esperientzia dela-eta aire-nabigagarritasuneko kodeko xedapenetakoren bat funtsezko betekizunak betetzea bermatzeko desegokia edo hankamotza denean.

b) aire-nabigagarritasuneko ziurtagiri mugatu bat eskatzen zaien produktueterako, aire-nabigagarritasuneko zehaztapen espezifikokoak ezarri eta jakinaraziko ditu;

c) ziurtagiri bat eskatzen zaien osagai edo ekipamenduetarako, xehetasuneko aire-nabigagarritasuneko zehaztapenak ezarri eta jakinaraziko ditu;

d) 6. artikuluari jarraiki ingurumen-ziurtagiri bat eskatzen zaien produktueterako, dagozkion ingurumen-betekizunak ezarri eta jakinaraziko ditu.

e) bere kabuz edo hartarako kualifikatutako aeronautikako estatu-agintarien edo organismoen bidez, produktuen, osagaien eta ekipamenduen ziurtapenekin lotutako ikerketak egingo ditu;

f) dagozkion mota-ziurtagiriak edo haietan egin beharreko aldaketak egingo ditu;

g) osagaiei eta ekipamenduei dagozkien ziurtagiriak egingo ditu;

h) dagozkion ingurumen-ziurtagiriak egingo ditu;

i) ziurtagiri bat aldatu, bertan behera utzi edo atzera botako du, jadanik ziurtagiri hori egiteko baldintzak betetzen ez direnean edo ziurtagiriaren titularra den pertsona juridikoak edo fisikoak Erregelamendu honen edo bertako aplikazio-xedapenen arabera ezartzen zaizkion betebeharrak betetzen ez dituenean.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

j) bere ardurapeko produktuekin, osagaiekin eta ekipamenduekin lotutako aire-nabigagarritasuneko baldintzei eusten saiaturiko da; segurtasun-arazo baten aurrean, atzerapenik gabe, berehala erantzungo du, eta aplikatu daitezkeen nahitaezko informazioa taxutu eta zabalduko du;

k) hegaldi-baimen bat egin behar zaien aireontzietarako, aire-nabigagarritasuneko arauak eta prozedurak ezarriko ditu, 5. artikuluan, 4. paragrafoan, a) idatz-zatian ezarritakoaren arabera;

l) aireontzien hegaldi-baimenak egingo ditu, ziurtapena Agentziaren kontrolpean egin dadin, aireontzia matrikulatu den edo matrikulatuko den Estatu kidearekin bat datorrela.

2. Erakundeei dagokienez, Agentziak:

a) bere kabuz edo hartarako kualifikatutako aeronautikako estatu-agintarien edo organismoen bidez, ziurtatzen dituen erakundeen ikuskapenak eta auditoriak gauzatuko ditu;

b) jarraian adierazten diren erakundeen ziurtagiriak egin eta berrituko ditu:

i) diseinu-erakundeak, edo

ii) estatu kideak hala eskatzen duenean, estatu kide horren lurraldean kokatzen den ekoizpen-erakundea, edo

iii) estatu kideen lurraldetik kanpo kokatutako ekoizpen- eta mantentze-erakundeak;

i) erakundeei dagozkien ziurtagiriak aldatu, bertan behera utzi edo atzera botako ditu, jadanik ziurtagiri horiek egiteko baldintzak betetzen ez direnean edo erakunde interesdunak Erregelamendu honen edo bertako aplikazio-xedapenen arabera ezartzen zaizkion betebeharrak betetzen ez dituzenean.

21. artikulua

Pilotuen ziurtagiriak

1. 7. artikuluan, 1. paragrafoan aipatutako langileei eta zentzoei dagokienez, Agentziak:

a) bere kabuz edo hartarako kualifikatutako aeronautikako estatu-agintarien edo organismoen bidez, ziurtatzen dituen zentzoen ikuskapenak eta auditoriak gauzatuko ditu, eta, hala dagokionean, baita haietako langileena ere.

b) estatu kideen lurraldetik kanpo kokatutako pilotuen prestakuntza-zentzoen eta aeronautikako medikuntza-zentzoen ziurtagiriak egin eta berrituko ditu, eta, hala dagokionean, baita haietako langileena ere.

i) ziurtagiri bat aldatu, mugatu, bertan behera utzi edo atzera botako du, jadanik ziurtagiri hori egiteko baldintzak betetzen ez direnean edo ziurtagiriaren titularraren pertsona juridikoak edo fisikoak Erregelamendu honen edo bertako aplikazio-xedapenen arabera ezartzen zaizkion betebeharrak betetzen ez dituzenean.

2. 7. artikuluan, 1. paragrafoan aipatzen diren entrenamendurako hegaldien simulazio gailuei dagokienez, Agentziak:

a) bere kabuz edo hartarako kualifikatutako aeronautikako estatu-agintarien edo organismoen bidez, ziurtatzen dituen gailuen ikuskapen teknikoak gauzatuko ditu;

b) jarraian adierazten diren gailuen ziurtagiriak egin eta berrituko ditu:

i) Agentziaren ziurtagiria jaso duten prestakuntza-zentroetan erabiltzen diren entrenamendurako hegaldien simulazio-gailuak, edo

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ii) Estatu kide interesdunak hala eskatzen badu, estatu kideen lurraldean kokatutako entrenamendurako hegaldien simulazio-gailuak,

iii) estatu kideen lurraldetik kanpo kokatutako entrenamendurako hegaldien simulazio-gailuak;

i) ziurtagiri bat aldatu, mugatu, bertan behera utzi edo atzera botako du, jadanik ziurtagiri hori egiteko baldintzak betetzen ez direnean edo ziurtagiriaren titularra den pertsona juridikoak edo fisikoak Erregelamendu honen edo bertako aplikazio-xedapenen arabera ezartzen zaizkion betebeharrak betetzen ez dituenean.

22. artikulua

Aire-operadoreen ziurtagiria

1. Agentziak aire-operazioen segurtasunean eragiten duen edozein arazori helduko dio berehala, atzerapenik gabe, eta neurri-zuzentzaileak zehaztu eta gaiarekin lotutako informazioa zabalduko du, eta estatu kideei ere helaraziko die.

2. Hegaldiaren denborari buruzko murriztapenei dagokionez:

a) Agentziak funtsezko betekizunak betetzen direla bermatzeko egoki diren ziurtapenen zehaztapenak egingo ditu, eta, hala dagokionean, dagozkion aplikazio-xedapenenak ere bai. Hasiara batean, aplikazio-xedapenetan, 3922/91 (EEE) Erregelamenduko III. eranskineko Q azpizatiko funtsezko xedapen guztiak barneratuko dira, azken datu zientifiko eta teknikoak kontuan hartuz;

b) Estatu kide batek hegaldi baten denborari buruzko plan jakinei dagozkien zehaztapenak onartu ahal izango ditu, betiere, plan horiek a) idatz-zatian aipatzen diren ziurtapenen zehaztapenekin loturarik ez badute. Kasu horretan, estatu kideak plan jakin hori onartzeko asmoa jakinaraziko die Agentziari, Batzordeari eta estatu kideei;

c) jakinarazpena jasotzean, Agentziak, hilabeteko epean, plan jakin hori balioetsiko du; horretarako, medikuntza-ebaluazioan eta ebaluazio zientifikoan oinarrituko da. Ondoren, jakinarazi den moduan, estatu kide interesdunak onarpen hori eman ahal izango du. Dena den, Agentzia estatu kide horrekin planaren inguruan mintzatu bada eta aldaketak proposatu baditu, ez da oraindik onarpenik emango. Estatu kidea aldaketekin bat badator, dagokion onarpena eman ahal izango du;

d) egoera operatibo presazkoak eta ustekabeak gertatzen direnean edo denbora mugatu bat duten eta errepikakorrak ez diren behar operatiboetan, ziurtapenen zehaztapenei salbuespen ezohikoak aplikatu ahal izango zaizkie, Agentziak bere irizpena ezagutarazten duen arte;

e) estatu kideren bat ez badago ados Agentziak plan jakin bati buruz ondorioztatu duenarekin, auzia Batzordearen eskuetan utziko du. Hala, azken horrek erabakiko du aipatutako planak, 65. artikuluan, 3. paragrafoan agindutako prozeduraren arabera, Erregelamendu honetako segurtasun-helburuak betetzen dituen ala ez;

f) Agentziak onartzeko modukotzat hartzen dituen plan jakinen, edo, e) idatz-zatiari jarraiki, Batzordearen oniritzia duten planen edukia argitaratu egingo da.

23. artikulua

Beste herrialde batzuetako operadoreak

1. Merkataritzako operazioak egiten dituzten eta 4. artikuluan, 1. paragrafoan, d) idatz-zatian aipatzen diren aireontzien operadoreei dagokienez, Agentziak:

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

a) bere kabuz edo hartarako kualifikatutako aeronautikako estatu-agintarien edo organismoen bidez, ikuskapenak eta auditoriak gauzatuko ditu;

b) 9. artikuluan, 2. paragrafoan aipatzen diren baimenak egin eta berrituko ditu, baldin eta, aipagai diren operadoreei dagokienez, beste estatu kide batek operadorearen estatuari dagozkion zereginak eta eginbeharrak egiten ez baditu;

c) ziurtagiri bat aldatu, mugatu, bertan behera utzi edo atzera botako du, jadanik ziurtagiri hori egiteko baldintzak betetzen ez direnean edo aipagai dugun erakundeak Erregelamendu honen edo bertako aplikazio-xedapenen arabera ezartzen zaizkion betebeharrak betetzen ez dituenean.

2. Merkataritzako operazioetan parte hartzen ez duten eta 4. artikuluan, 1. paragrafoan, d) idatz-zatian aipatzen diren aireontzien operadoreei dagokienez, Agentziak:

a) 9. artikuluan, 3. paragrafoan aipatzen diren adierazpenak jasoko ditu, eta

b) bere kabuz edo hartarako kualifikatutako aeronautikako estatu-agintarien edo organismoen bidez adierazpen bat igorri dioten operadoreen ikuskapena gauzatuko du.

3. 4. artikuluan, 1. paragrafoan, d) idatz-zatian aipatzen diren aireontziei dagokienez, Agentziak 9. artikuluan, 4. paragrafoan, a) idatz-zatian ezarritakoaren arabera egingo ditu baimenak.

24. artikulua

Arauen aplikazioaren ikuskapena

1. Agentziak 1. artikuluan, 1. paragrafoan, eskumeneko estatu-agintariak erregelamendu hau eta bertako aplikazio-xedapenak aplikatzeari buruzkoan, adierazten diren eremuetan normalizazio-ikuskapenak gauzatuko ditu eta Batzordeari haien berri emango dio.

2. Agentziak ikuskapenak egingo ditu enpresetan Erregelamendu hau eta bertako aplikazio-xedapenak aplikatzen diren ikuskatzeko.

3. Agentziak Erregelamendu hau eta bertako aplikazio-xedapenak zein neurritan aplikatzen diren ebaluatuko du, 2. artikuluan ezarritako helburuak kontuan hartuz.

4. Agentziari kontsultatuko zaio eta honek Batzordeari gomendioak emango dizkio, 14. artikulua aplikatzeari dagokionez.

5. Agentziak 1, 3 eta 4. paragrafoetan aipatzen diren egitekoak burutzeko erabiliko duen lan-metodologia 65. artikuluan, 2. paragrafoan agindutako prozeduraren arabera hartuko diren betekizunen baitan egongo da, 52. eta 53. artikuluetan ezarritako printzipioak ere kontuan hartuz.

25. artikulua

Isunak edo isun hertsagarriak

1. 20 eta 55. artikuluetan ezarritakoaz gain, Agentziak aurrez eskatu ondoren, Batzordeak ahalmena izango du:

a) Agentziaren ziurtagiria jaso duten pertsonen eta enpresei isunak ezartzeko, haiek, berariaz edo axolagabekeriak, Erregelamendu honetako xedapenak eta dagozkion aplikazio-xedapenak bete ez dituztenean;

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

a) Agentziaren ziurtagiria jaso duten pertsoneri eta enpresei isun hertsagarriak ezartzeko; isun horiek erabakian finkatutako egunetik aurrera kalkulatu dira, pertsona eta enpresa horiek Erregelamendu hau eta bertako aplikazio-xedapenak betetzera behartzeko.

2. Disuasio-isunak izango dira 1. paragrafoan aipatzen diren isun eta isun hertsagarriak, eta kasuan kasuko larritasunaren arabera izango dira; gainera, unean uneko ziurtagiriaren titularrak duen gaitasun ekonomikoaren arabera ezarriko dira, bereziki aintzat hartuz segurtasuna zein neurritan jarri den arriskuan. Isunen zenbatekoa ez da ziurtagiriaren titularrak dituen urteko diru-sarreraren edo negozio-bolumenaren % 4 baino handiagoa izango. Isun hertsagarriaren zenbatekoa ez da ziurtagiriaren titularrak dituen eguneko batez besteko diru-sarreraren edo negozio bolumenaren % 2,5 baino handiagoa izango.

3. Batzordeak, 65. artikuluan, 3. paragrafoan ezarritako prozeduraren arabera, artikulua hau aplikatzeko xedapen zehatzak hartuko ditu, eta, bereziki, honako hauek zehaztuko ditu:

a) isunaren edo isun hertsagarriaren zenbatekoa finkatzeko irizpide zehatzak, eta

b) ikerketa-prozedurak, harekin lotutako neurriak eta informazio-prozedurak, eta, halaber, erabakiak hartzeko jarraitu beharreko araudia. Horrek hauek ere hartuko ditu barne: defentsa-eskubideari dagozkion xedapenak, agiriak eskuratzeko eskubideak, ordezkaritza juridikoa, konfidentzialtasuna, aldi baterako xedapenak, zenbatekoen ezarpena, eta isunen eta isun hertsagarrien kobrantza.

4. Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiak jurisdikzio-eskumen osoa izango du, Batzordeak isuna edo isun hertsagarria ezarritako Erabakien aurka jarritako helegiteak ebazteko. Ezarritako isuna edo isun hertsagarria atzera bota, murriztu edo areagotu ahal izango du.

5. Ez dute ondorio penalik izango 1. paragrafoaren arabera hartutako erabakiek.

26. artikulua

Ikerketa

1. Agentziak ikerketa-lanak burutu eta finantzatu ahal izango ditu, ikerketa hori bere eskumen-eremuko jarduerak hobetzearekin lotuta dagoenean, baina Erkidegoko zuzenbidea ere ezarri ahal izango da.

2. Agentziak bere ikerketa- eta garapen-jarduerak Batzordearen eta estatu kideen ikerketa- eta garapen-jarduerekin koordinatuko ditu, politikak eta egiten diren ekintzak elkarren artean koherente izan daitezela ziurtatzeko.

3. Agentziak finantzatutako ikerketen ondorioak argitaratu egingo dira, Agentziak konfidentzialtzat jotzen ez baditu.

27. artikulua

Nazioarteko harremanak

1. Agentziak laguntza emango die Batzordeari eta estatu kideei beste herrialde batzuekiko harremanetan, dagozkion Erkidego Zuzenbideari jarraituz. Bereziki, arauak harmonizatzen eta arauak egoki aplikatzen direla ziurtatzen duten homologazioak elkarri aitortzen lagunduko du.

2. Agentzia beste herrialde batzuetako aeronautikako agintariekin eta Erregelamendu honetan arautzen diren gaietan eskumena duten nazioarteko erakundeekin lankidetzan aritu daiteke, organismo horiekin hitzartutako lan-akordioen esparruan, Tratutako dagozkion xedapenei jarraiki. Akordio horiek Batzordeak onartu beharko ditu alde zuzenetik.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

3. Agentziak estatu kideei laguntza emango die nazioarteko betebeharrak betetzeko, bereziki, Chicagoko Hitzarmenetik eratortzen diren betebeharrei dagokienez.

II. ATALA

Barne-egitura

28. artikulua

Izaera juridikoa, egoitza, tokiko bulegoak

1. Agentzia Erkidegoko organismo bat izango da. Izaera juridikoa izango du.
2. Estatu kide bakoitzean, estatu kide horren barneko Zuzenbideak pertsona juridikoei aitortzen dien jarduteko eskumen juridiko zabalena izango du Agentziak. Bereziki, ondasun higigarriak edo ondasun higiezinak erosi edo besterendu ahal izango ditu; eta legezko akziotan banatu ahal izango da.
3. Agentziak bere egoitzak estatu kideen lurretan finka ditzake, haien aurretiko baimena izan ostean.
4. Zuzendari exekutiboak ordezkatu du Agentzia.

29. artikulua

Langileak

1. Europako Erkidegoko Funtzionarioen Estatutua, Europako Erkidegoetako beste agente batzuei aplikatu dakiekeen Erregimena eta Europako Erkidegoetako instituzioek elkarren artean adostutako arauak aplikatuko zaizkie Agentziako langileei, Estatutu eta Erregimen horiek aplikatzeko xedez. Dena den, helegite-areto kideei Erregelamendu honetako 39. artikulua aplikatu ahal izango zaie.
2. 42. artikuluan ezarritakoa bete behar bada ere, funtzionarioen Estatutuak eta beste agente batzuei aplikatu dakizkiekeen erregimenak Izendapenak Egiteko Eskumena duen Agintaritzari esleitutako eskumenak esleituko dizkie Agentziak bere langileei.
3. Agentziako langileen artean funtzionario-kopuru mugatu bat izango da. Batzordeak edo estatu kideek kudeaketan egiteko destinatutako edo bereizitako funtzionarioak izango dira. Gainerako langileak Agentziak beharrak kontuan hartuta kontratatutako agenteak izango dira.

30. artikulua

Pribilegioak eta immunitateak

Agentziari Europako Erkidegoetako pribilegioei eta immunitateei buruzko Protokoloa aplikatuko zaie, Europako Erkidegoa eta Energia Atomikoaren Europako Erkidegoa eratzekeo Tratatuetan erantsita doana.

31. artikulua

216/2008 (EE) erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 79/1, 2008/3/19koa)

Erantzukizuna

1. Kasuan kasuko kontratuari aplikatu behar zaion legeak arautuko du Agentziaren kontratu-erantzukizuna.
2. Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiak auziez arduratzeko eskumena izango du, Agentziak sinatutako kontratuetan barneratutako edozein arbitraje-klausulari jarraiki.
3. Kontratz kanpoko erantzukizunari dagokionez, Agentziak bere zerbitzuek edo bere agenteek beren eginkizunak betetzean sortutako kalteak konpondu beharko ditu, estatu kideetako zuzenbideetan komunak diren printzipio orokorrekin bat etorritik.
4. Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiak izango du 3. paragrafoan aipatutako edozein kalteren kalte-ordainei buruzko auziez arduratzeko eskumena.
5. Langileek Agentziarekiko daukaten erantzukizun pertsonala funtzionarioen estatutuko edo aplikagarri zaien erregimeneko xedapenen arabera arautuko da.

32. artikulua

Agirien argitalpena

1. Tratutako 290. artikulua araberan hartutako erabakien kalterik gabe, Erkidegoko hizkuntza ofizial guztietan egingo dira agiri hauek:
 - a) 15. artikuluan, 4. paragrafoan adierazitako segurtasunari buruzko txostena;
 - b) 19. artikuluko 1. paragrafoari jarraiki Batzordeari helarazten zaizkion irizpenak;
 - c) 33. artikuluan, 2. paragrafoan, b) eta c) idatz-zatietan (hurrenez hurren) adierazitako urteko txosten orokorra eta lan-programa.
2. Agentziaren funtzionamendurako eskatzen diren itzulpen-zerbitzuak Europar Batasuneko Organoetako Itzulpen Zentroak emango ditu.

33. artikulua

Administrazio-kontseiluaren eskumenak

1. Agentziak administrazio-kontseilu bat izango du.
2. Administrazio-kontseiluak:
 - a) zuzendari exekutiboa izendatuko du eta zuzendari exekutiboak proposatutako zuzendariak ere bai, 39. artikuluan ezarritakoaren arabera.
 - b) Agentziaren jardueri buruzko urteko txosten orokorra onartuko du eta Europako Parlamentura, Kontseilura, Batzordera, Kontu Auzitegira eta estatu kideetara helaraziko du, urte bakoitzeko ekainaren 15ean beranduenera; Agentziaren izenean, Europako Parlamentura eta Kontseilura (aurrerantzean «Aurrekontu Agintaritzan») igorriko du urtero ebaluazio-prozeduren emaitzatarako egokia izan daitekeen informazio oro, bereziki, Agentziari esleitutako zereginetan jazotako aldaketek izan dituzten eraginei edo ondorioei dagokien informazioa;
 - c) urte bakoitzeko irailaren 30a baino lehenago, aurrez Batzordearen irizpena jaso ostean, Agentziaren hurrengo urteko lan-programa taxutuko du eta Europako Parlamentuari, Kontseiluari, Batzordeari eta estatu kideei helaraziko

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

die; lan-programa hori Erkidegoaren urteko aurrekontuaren prozedurari eta aire-segurtasuneko esparruko Erkidegoko legegintza-programari jarraituz egingo da; Batzordearen irizpena lan-programari atxikiko zaio;

d) aeronautikako estatu-agintariei eta hartarako kualifikatutako organismoei ziurtapen-eginkizunak ezartzeko jarraibideak finkatuko ditu, Batzordearekin bat etorritz;

e) prozedurak ezarriko ditu zuzendari exekutiboak erabakiak har ditzan; horretarako, 52 eta 53. artikuluetan ezartzen denari jarraituko dio;

f) 59, 60 eta 63. artikuluen arabera burutuko ditu Agentziaren aurrekontuari dagozkion zereginak;

g) 41. artikulua arabera izendatuko ditu helegite-aretoko kideak;

h) zuzendari exekutiboaren diziplina-agintaria izango da; halaber, aipatutako zuzendari exekutiboarekin batera, gainerako zuzendarien diziplina-agintaria izango da;

i) 64. artikuluan, 1. paragrafoan aipatzen diren tasa eta diru-sarrereri dagozkien neurriei buruzko irizpena emango du;

j) bere barne-araudia onartuko du;

k) Agentziaren hizkuntza-erregimenari buruzko erabakiak hartuko ditu;

l) hala badagokio, 32. artikuluan, 1. paragrafoan aurreikusten den agirien zerrenda osatuko du;

m) Agentziaren antolamendu-egitura finkatuko du eta langileei buruzko bere politika ezarriko du.

3. Administrazio-kontseiluak laguntza eman ahal izango dio zuzendari-exekutiboari abiazioaren segurtasunaren garapen estrategikoarekin zuzen-zuzenean lotutako edozein arlotan, baita 26. artikuluan zehazten den ikerketan ere.

4. Administrazio-kontseiluak interesdunen kontsultarako organo bat eratuko du eta 2. paragrafoan, c), e), f) eta i) idatz-zatietan aipatzen diren arloei buruzko erabakiak hartu aurretik hara joko du. Era berean, administrazio-kontseiluak kontsultarako organora jo ahal izango du 2 eta 3. paragrafoetan aipatzen diren bestelako auziei buruz aholku eske. Kontsultarako organoen irizpenak ez dira lotesleak izango administrazio-kontseiluarentzat.

5. Administrazio-kontseiluak bere zereginetan laguntza emango dioten organoak sor ditzake. Erabakiak prestatzeko eta erabaki horiek betetzen direla ziurtatzeko ikuskapenak egiteko ere izan daitezke.

34. artikulua

Administrazio-kontseiluaren osaera

1. Estatu kide bakoitzeko ordezkari banak eta Batzordearen ordezkari batek osatuko dute administrazio-kontseilua. Kideak hautatzerakoan kontuan hartuko dira haien esperientzia aitortua eta abiazio zibilaren esparruan dituzten konpromisoa, kudeaketarako gaitasunak eta espezializazio-maila; alegia, Erregelamendu honetan jasotako helburuak sustatzeko lagungarriak diren alderdi guztiak. Europako Parlamentuaren eskumeneko batzordeari horri buruzko informazio guztia jakinarazi beharko zaio.

Estatu kide bakoitzak administrazio-kontseiluko kide bat eta ordezkari bat izendatuko ditu, ez dagoenean ordezkari dezan. Horrez gain, Batzordeak bere ordezkaria eta haren ordezkaria ere izendatuko ditu. Agintaldia bost urtekoa izango da. Agintaldi hori berriro egin daiteke.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

2. Hala badagokio, 66. artikuluan adierazten diren akordioei jarraiki ezarriko dira Europako beste herrialde batzuetako ordezkarien partaidetza, eta partaidetza horren baldintzak.

3. 33. artikuluan, 4. paragrafoan aipatzen den kontsultarako organoak lau kide izendatuko ditu, administrazio-kontseiluan behatzaile modura aritu daitezten. Kontsultarako organoan adierazten diren iritzi guztiak ordezkatuko dituzte, ahalik eta modu zabalenean. Agintaldia 30 hilekoa izango da eta behin bakarrik berritu ahal izango da.

35. artikulua

Administrazio-kontseiluaren presidentzia

1. Administrazio-kontseiluak presidente bat eta presidenteorde bat hautatuko ditu bere kideen artean. Presidenteordeak hartuko du presidentearen kargua, hark bere betebeharrak burutzeko ezintasuna badu.

2. Presidentearen eta presidenteordearen agintaldia administrazio-kontseiluko kide izateari uzten diotenean amaituko da. Xedapen honetan ezarritakoa baztertu gabe, hiru urtekoa izango da presidentearen eta presidenteordearen agintaldia. Agintaldi hori behin bakarrik berritu daiteke.

36. artikulua

Batzarrak

1. Administrazio-kontseiluko batzarrak presidenteak deituko ditu.

2. Agentziako zuzendari exekutiboak eztabaidetan parte hartuko du.

3. Administrazio-kontseiluak urtean bi ohiko batzar antolatuko ditu. Horrez gain, presidentearen ekimenez edo, gutxienez, kideen herenak eskatuta elkartuko da administrazio-kontseilua.

4. Administrazio-kontseiluak iritzi interesgarria izan dezakeen edonor gonbida dezake batzarrean parte hartzera, betiere, behatzaile modura.

5. Administrazio-kontseiluko kideek, barne-araudian ezartzen denari jarraituz, aholkularien edo adituen laguntza izan dezakete.

6. Agentziak administrazio-kontseiluaren idazkaritza-lanak egingo ditu.

37. artikulua

Bozketa

1. 39. artikuluan, 1. paragrafoan ezartzen dena kontuan hartuta betiere, administrazio-kontseiluak bere kideen bi herenaren gehiengoz hartuko ditu erabakiak. Administrazio-kontseiluko kide batek hala eskatuta, 33. artikuluan, 2. paragrafoan, k) idatz-zatian aipatzen den erabakia aho batez onartu beharko da.

2. 34. artikuluko 1. paragrafoaren arabera izendatutako kide bakoitzak boto bana izango du. Kideren batek huts eginez gero, haren ordezkioak haren boto-eskubidea gauzatzeko eskumena izango du. Behatzaileek eta zuzendari exekutiboak ez dute bozkatuko.

3. Barne-araudian adieraziko dira bozketa egiteko moduak, bereziki kide batek beste baten izenean jarduteko baldintzak, eta, halaber, hala dagokionean, quorumari aplikatu dakizkiokeen baldintzak.

38. artikulua

Zuzendari exekutiboaren egitekoak eta eskumenak

1. Zuzendari exekutiboa arduratuko da Agentzia kudeatzeaz eta erabateko independentzia izango du berari dagozkion betebeharrak betetzeko. Batzordearen eta administrazio-kontseiluaren eskumenak kontuan hartu behar badira ere, zuzendari exekutiboak ez du beste gobernuren baten edo bestelako organismo baten jarraibiderik jaso edota eskatuko.
2. Europako Parlamentuak edo Kontseiluak Agentziako zuzendari exekutiboa deitu ahal izango dute, bere egitekoak nola gauzatzen dituen azal dezan.
3. Zuzendari exekutiboak jarraian adierazten diren egitekoak eta eskumenak izango ditu:
 - a) Agentziaren neurriak onartuko ditu 18. artikuluan ezarritakoari jarraituz, kontuan hartuta Erregelamendu honek, hori aplikatzeko xedapenek eta aplikagarri den beste edozein arauk ezarritako mugak.
 - b) 54 eta 55. artikuluen arabera egin beharrekoak diren ikuskapenei eta ikerketei buruzko erabakiak hartuko ditu.
 - c) Aeronautikako estatu-agintariei edo hartarako kualifikatutako organismoei ziurtapen-lanak emango dizkie, administrazio-kontseiluak ezarritako jarraibideei jarraituz;
 - d) Nazioarteko edozein lan egiteaz edo beste herrialde batzuekiko lankidetzaren teknikoak burutzeaz arduratuko da, 27. artikulua betez.
 - e) Erregelamendu honen xedapenei jarraiki, Agentziaren funtzionamendua bermatzeko beharrezkoak diren neurriak hartuko ditu, hauek barne: barneko administrazio-argibideak ematea eta oharrak argitaratzea.
 - f) Urtero, txosten orokorreko proiektu bat prestatu eta administrazio-kontseiluari aurkeztuko dio.
 - g) Agentziako langileei dagokienez, 29. artikuluan, 2. paragrafoan adierazten diren eskumenak gauzatuko ditu.
 - h) Agentziaren diru-sarrerak eta gastuak kalkulatu ditu 59. artikuluan adierazten dena betez, eta aurrekontua gauzatuko du 60. artikuluan adierazten dena betez.
 - i) Bere eskumenak Agentziako beste kide batzuen esku utziko ditu. Horretarako, 65. artikuluan, 2. paragrafoan aurreikusten den prozeduraren arabera onartu beharreko arauak jarraituko ditu.
 - j) Administrazio-kontseiluaren oniritzia izanik, estatu kideetan tokiko bulegoak zabaltzeari dagozkion erabakiak hartuko ditu, 28. artikuluan, 3. paragrafoan ezarritakoaren arabera.
 - k) Urteko lan-programa prestatu eta gauzatuko du.
 - l) Batzordeari lagunduko dio hark eskatutako zereginetan.

39. artikulua

Goi-funtzionarioen izendapena

1. Batzordearen proposamenari jarraituz, administrazio-kontseiluak izendatu eta kargugabetuko du zuzendari exekutiboa. Izendapena egiteko, haren merezimendu eta gaitasunak eta abiazio zibilaren alorrean frogatutako esperientzia hartuko ditu kontuan. Administrazio-kontseiluak bere kideen hiru laurdenaren gehiengoz hartuko du erabakia. Izendatu aurretik, Europako Parlamentuaren eskumeneko batzordearen edo batzordeen aurrean adierazpen bat egin dezala eta haietako kideen galderei erantzun diezaiela eskatu ahal zaio administrazio-kontseiluak aukeratu duen hautagaiari.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

2. Zuzendari exekutiboak zuzendari baten edo gehiagoren laguntza izango du. Zuzendari exekutiboa ez badago edo ezinduta badago, aipatutako zuzendarietako batek ordezkatuko du.

3. Agentziako zuzendariak izendatzerakoan abiazio zibilaren alorrean duten gaitasun profesionala hartuko da kontuan. Administrazio-kontseiluak izendatu edo kargugabetuko ditu zuzendariak, zuzendari exekutiboak hala eskatuta.

4. Zuzendari exekutiboaren eta zuzendarien agintaldia bost urtekoa izango da. Zuzendarien agintaldia berri egin daiteke eta zuzendari exekutiboaren agintaldia behin bakarrik berri egin daiteke.

40. artikulua

Helegite-aretoen eskumenak

1. Agentziaren barruan gutxienez helegite-areto bat eratuko da.

2. Helegite-aretoek 44. artikuluan aipatzen diren erabakien aurka ezarritako helegiteei buruz ebazteko eskumena izango dute.

3. Helegite-aretoa beharrezkoa den aldiro deituko da. 65. artikuluan, 3. paragrafoan agindutako prozeduraren arabera erabakiko du Batzordeak zenbat helegite-areto eratuko diren eta bakoitzak zer zeregin izango duen.

41. artikulua

Helegite-aretoen osaera

1. Presidente batek eta beste bi kidek osatuko dute helegite-aretoa.

2. Presidenteak eta bi kideek ordezkoak izango dituzte, eta horiek izango dira ez daudenean presidentea eta bi kideak ordezkatuko dituztenak.

3. Administrazio-kontseiluak izendatuko ditu presidentea, gainerako kideak eta bakoitzaren ordezkoak; horretarako, Batzordeak eratutako hautagaien zerrenda bat baliatuko du.

4. Helegite-aretoak, helegiteak hala eskatzen duela irizten duenean, beste bi kide dei ditzake 3. paragrafoan aipatzen den zerrendatik abiatuz.

5. 65. artikuluan, 3. paragrafoan agindutako prozeduraren arabera, Batzordeak ezarriko ditu helegite-areto bakoitzeko kideen kualifikazioa, ebazpenak prestatzeko fasean kide bakoitzak izango dituen eskumenak eta bozketarako baldintzak.

42. artikulua

Helegite-aretoetako kideak

1. Helegite-aretoetako kideen agintaldia bost urtekoa izango da, presidenteara eta ordezkoena barne. Agintaldi hori berri egin daiteke.

2. Helegite-aretoetako kideak independenteak izango dira. Erabakiak hartzerakoan ez diote inoren jarraibideei jarraituko.

3. Helegite-aretoetako kideek ezingo dute bestelako kargurik bete Agentziaren barnean. Helegite-aretoetako kideek denbora partzialeko lanaldia izan dezakete.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

4. Agintaldiak irauten duen bitartean, helegite-aretoko kideak ezingo dira kargugabetu ezta kualifikatutako hautagaien zerrendatik kendu ere, salbu eta horretarako arrazoi sendo bat egon eta Batzordeak, administrazio-kontseiluaren irizpena jaso ostean, hala erabakitzen badu.

43. artikulua

Inhibitzea eta ezestea

1. Helegite-aretoko kideek ezingo dute helegite batean parte hartu bertan interes pertsonalik badute, aurreko prozeduretan aldeetakoren baten ordezkari izan badira edo helegitea jartzeko erabakian parte hartu badute.
2. Lehenengo paragrafoan zerrendatzen den arrazoietako bat edo beste edozein arrazoi dela medio, helegite-aretoko kide batek helegitearen prozeduran ez duela parte hartu behar uste badu, aretoari jakinaraziko dio.
3. Helegite-prozesuan parte hartzen duen aldeetako edozeinek, lehenengo paragrafoan aipatutako arrazoiengatik edo nolabaiteko partzialtasunik susmatu duelako, helegite-aretoko kideren bat ezets dezake. Ez da horrelakorik onartuko, ezestearen arrazoiak ezagunak izanik, helegitean parte hartzen duen aldeak prozesuko izapide bat abiarazi badu. Ez da nazionalitate-arrazoiak oinarri dituen kideen ezesterik onartuko.
4. Helegite-aretoek erabakiko dute, eragindako kidea bertan izan gabe, zer neurri hartu behar den 2 eta 3. paragrafoetan adierazten diren kasuetan.

Erabaki horretan, haren ordezkoak ordezkatu du eragindako kidea.

44. artikulua

Helegitea izan dezaketen erabakiak

1. Agentziak 20, 21, 22, 23, 55 edo 64. artikuluen arabera hartutako erabakiei helegitea jar dakieke.
2. Lehenengo paragrafoaren arabera jarritako helegiteek ez dute etete-ondoriorik izango. Dena den, Agentziak helegitea jarritako erabakiaren aplikazioa bertan behera utz dezake, horretarako baldintzak badaudela uste badu.
3. Aldeetako baten prozedura eteten ez duten erabakiei behin betiko erabakiarekin soilik jar dakieke helegitea, baldin eta erabakiak berak aparteko helegiteren bat aurreikusten ez badu.

45. artikulua

Helegitea jartzeko eskumena duten pertsonak

Edozein pertsona fisiko edo juridikok jar diezaioke helegitea berari zuzendutako erabaki bati, edo beste pertsona bati zuzendutako erabakia izan arren, zuzenean eta pertsonalki eragiten dion erabakiari. Prozeduran alderdi direnak alderdi izan daitezke helegitean ere.

46. artikulua

Helegitea aurkezteko epea eta modua

Helegitea eta motibazio-idazkia Agentziari aurkeztu beharko zaizkio idatziz bi hilabeteko epean, pertsona interesdunari erabakiaren berri ematen zaion egunetik kontatzen hasita; edo, jakinarazpenik egiten ez bada, eragindako pertsonak erabakiaren berri izan zuen egunetik kontatzen hasita, egokien ikusten den moduan.

47. artikulua

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Epaiketa aurreko berrikuspena

1. Zuzendari exekutiboak helegitea ontzat eta funsduntzat eman badu, onartu egingo du. Xedapen hau ez da aplikatuko prozedurak helegilea beste alde baten aurka jartzen badu.
2. Agentziak motibazio-idazkia jaso eta hilabeteko epean erabakia zuzenduko ez balitz, Agentziak, 44. artikuluko 2. paragrafoari jarraiki, erabaki horren aplikazioa bertan behera uzten duen ala ez erabakiko du, besterik gabe, eta helegitea helegite-aretoa helaraziko du.

48. artikulua

Helegiteen azterketa

1. Helegitea onargarria izango balitz, helegite-aretoak aztertu egingo du funsduna den ala ez.
2. Lehenengo paragrafoko helegitea aztertzerakoan, aretoak bizkor emango du ebazpena. Beharrezkoa den aldiro, alderdiei gonbita egingo die aretoaren edo helegitean inplikaturako hirugarren alderdien alegazioei buruzko oharrak aurkez ditzaten, horretarako ezarriko duen epean. Helegiteko alderdiek aukera dute oharrak ahoz aurkezteko.

49. artikulua

Helegitearen ebazpena

Helegite-aretoak Agentziaren eskumenak gauza ditzake edo gaia Agentziaren eskumeneko zerbitzura helaraz dezake. Azken horrek nahitaez bete beharko du helegite-aretoaren ebazpena.

50. artikulua

Justizia Auzitegian jarritako helegiteak

1. Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegian, alde batetik, Agentzietatik eratorritzen diren eta hirugarrenak lotzen dituen eragin juridikoak sorrarazten dituzten egintzak baliogabetzeko helegiteak jar daitezke, eta, beste alde batetik, ez egitearen aurkako helegiteak aurkez daitezke edo Agentziak egindako ekintzen bidez sortutako kalte-galeren aurkako ekintzak.
2. Agentziak 20, 21, 22, 23, 55 edo 64. artikuluei jarraiki hartutako erabakiak baliogabetzeko helegiteak Agentziaren barneko helegite-bideak agortu direnean soilik jarri ahal izango dira Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegian.
3. Agentziak Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiaren epaiak betetzeko beharrezkoak diren neurri guztiak hartu beharko ditu.

51. artikulua

Helegite zuzena

Estatu kideek eta Erkidegoko instituzioek helegite zuzena jarri ahal izango dute Agentziak hartutako erabakien aurka Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegian.

III. ATALA

Lan-metodoak

52. artikulua

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Irizpenak, ziurtapenen zehaztapenak eta dokumentazio orientagarria egiteko prozedurak

1. Erregelamendu hau indarrean sartu eta lehenbailehen, administrazio-kontseiluak 18. artikuluan, a) eta c) idatz-zatietan aipatzen diren irizpenak, ziurtapenen zehaztapenak eta dokumentazio orientagarria egiteko prozedura gardenak ezarriko ditu.

Prozedurek:

- a) estatu kideen abiazioa arautzen duten organismoen ezagutza teknikoak hartuko dituzte oinarri;
 - b) behar denean, dagozkion alderdi interesatuetan aproposak diren adituak barneratuko dituzte;
 - c) Agentziak dokumentuak argitaratzea eta alderdi interesdunekin luze eta zabal kontsultatzea bermatuko dute, Agentziak kontsulta-prozesuari idatzizko erantzuna emateko betebeharra ezartzen duen epe eta prozedurari jarraiki.
2. 19. artikuluari jarraiki, Agentziak estatu kideek aplikatu beharreko irizpenak, ziurtapenen zehaztapenak eta dokumentazio orientagarriak egiten dituenean, haiekin kontsulta egiteko prozedura bat ezarriko du. Horretarako, lan-talde bat sortu ahal izango du eta bertan Estatu kide bakoitzak aditu bat izendatzeko eskubidea izango du.
3. 18. artikuluan, a) eta c) idatz-zatietan aipatzen diren neurriak eta artikulua honetako lehenengo paragrafoaren arabera ezarritako prozedurak Agentziak egindako argitalpen ofizial baten bidez argitaratuko dira.
4. Prozedura bereziak ezarriko dira Agentziak segurtasun-arazo bati erantzuteko berehala hartu beharreko neurrietarako eta kasuan kasuko alderdi interesdunei hartutako neurrien berri emateko.

53. artikulua

Erabakiak hartzeko prozedurak

1. Administrazio-kontseiluak, 18. artikuluan, d) idatz-zatian ezartzen denaren arabera, prozedura gardenak ezarriko ditu erabaki indibidualak hartzeko.

Prozedura horiek:

- a) erabakiaren xede den pertsona fisiko edo juridikoak eta zuzenean eta pertsonalki interesduna den beste edozein pertsonak esan beharrekoa entzungo dela bermatuko dute;
 - b) pertsona fisiko edo juridiko bati zuzendutako erabakiaren jakinarazpena eta argitalpena ezarriko dituzte;
 - c) erabakiaren xede diren pertsona fisiko edo juridikoei eta prozeduran parte hartzen duen beste edozein alderi, Erregelamendu honen arabera erabil ditzaketan helegite-bideen berri ematen zaiela ziurtatuko dute;
 - d) erabaki hori arrazoitua egotea bermatuko dute.
2. Administrazio-kontseiluak erabakiak jakinarazteko baldintzak zehazten dituzten prozedurak ezarriko ditu, helegite-prozedurari zor zaion errespetua izanik.
3. Agentziak segurtasun-arazo bati erantzuteko berehala hartu beharreko neurrien inguruko eta kasuan kasuko alde interesdunei hartutako neurrien berri emateko prozedura bereziak ezarriko dira.

54. artikulua

Estatu kideen ikuskapenak

216/2008 (EE) erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 79/1, 2008/3/19koa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

1. Tratatuak Batzordeari esleitzen dizkion eskumenak gauzatzearen kalterik gabe, Agentziak Batzordeari laguntza emango dio Erregelamendu hau eta bertako aplikazio-xedapenak aplikatzen direla kontrolatzeko; horretarako estatu kideen eskumena duten agintariek normalizazio-ikuskapenak gauzatuko dituzte, 24. artikuluan, 1. paragrafoan aipatzen direnak. Horretarako, eta dagokion estatu kidearen araei jarraiki, Erregelamendu honen arabera baimendutako funtzionarioek eta agintari nazionalak zerbitzu-eginkizunean bidalita ikuskapenean parte hartzen dutenek baimena izango dute:

a) erregistroak, datuak, prozedurak eta Erregelamendu honetan eskatzen diren aireko segurtasun-mailak erdiesteko dagozkien bestelako dokumentuak aztertzeke;

b) erregistro, datu, prozedura eta bestelako dokumentazio horien kopiak edo aterakinak eskuratzeko;

c) lurrari buruzko ahozko azalpenak eskatzeko;

d) dagokion lokal, lur edo garraiobiderako sarbidea izateko.

2. Ikuskapen horiek egiteko baimena duten Agentziako funtzionarioek, auzia, ikuskapenaren asmoa eta hasiera-data zehaztuko dituen idatzizko baimena aldeztatik aurretik aurkeztuta gauzatuko dituzte 1. paragrafoan agintzen diren eskumenak. Agentziak, egoki den epearen barnean, Estatu kide interesdunari ikuskapenaren eta baimendutako funtzionarioen identitatearen berri emango dio.

3. Estatu kide interesdunak ikuskapena jasoko du eta pertsona edo sail interesdunak ere ikuskapenak jaso ditzan ziurtatuko du.

4. Artikulu honetan ezarritakoaren arabera egindako ikuskapen batek enpresa edo enpresa-elkarte baten ikuskapena eskatzen duenean, 55. artikuluan ezarritakoa aplikatuko da. Enpresa batek muzin egiten badio ikuskapena jasotzeari, estatu kide interesdunak behar duten laguntza emango die Agentziak baimendutako funtzionarioei, azken horiek ikuskapena gauza dezaten.

5. Artikulu honi jarraiki taxututako txostenak ikuskapena jasoko duen estatu kidearen hizkuntza ofizialean edo ofizialetan idatziko dira.

55. artikulua

Enpresen ikerketa

1. Agentziak, bere kabuz, beharrezkoak diren ikerketa guztiak egin ditzake enpresetan 7, 20, 21, 22 eta 23 artikuluei nahiz 24. artikuluko 2. paragrafoari jarraiki, edo aeronautikako agintaritzak nazionalak edo horretarako kualifikazioa duten organismoek agin diezaike zeregin hori. Ikerketak egiten direneko estatu kideen legezko xedapenak beteaz gauzatuko dira ikerketak. Horretarako, Erregelamendu honen arabera baimendutako pertsonak eskumena izango dute:

a) erregistroak, datuak, prozedurak eta Agentziaren zeregina gauzatzeko dagozkion bestelako dokumentuak aztertzeke;

b) erregistro, datu, prozedura eta bestelako dokumentazio horien kopiak edo aterakinak eskuratzeko; c) lurrari buruzko ahozko azalpenak eskatzeko;

d) enpresako dagokion lokal, lur edo garraiobiderako sarbidea izateko;

e) estatu kideen lankidetzarekin aireontzien ikuskapenak gauzatzeko.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

2. 1. paragrafoan agindutako ikerketak egiteko baimena duten pertsonak auzia eta ikerketaren asmoa zehaztuko dituen idatzizko baimena aldeztu aurretik aurkeztuta gauzatu behar dituzte eskumenak.

3. Agentziak, egoki den epearen barnean, ikerketa hori gauzatu behar den lurraldeko estatu kideari baimendutako pertsonen identitatearen eta ikerketaren berri emango dio. Agentziak hala eskatuta, Estatu kide interesduneko funtzionarioek baimendutako pertsonen laguntza emango diete zeregin horietan.

56. artikulua

Urteko lan-programa

Urteko lan-programaren helburua Europako abiazio-segurtasunaren etengabeko hobekuntza sustatzea izango da, eta Erregelamendu honetan ezartzen diren Agentziako helburu, agindu eta zereginetara doitu behar da. Aurreko urtearekin alderatuz, Agentziaren zein agindu eta funtzio erantsi, aldatu edo ezabatu diren adieraziko du argi eta garbi.

Urteko lan-programa aurkezteko, Batzordeak jarduerak burutzeko oinarritzat hartutako kudeaketan erabilitako metodologia baliatuko da.

57. artikulua

Urteko txosten orokorra

Urteko txosten orokorrean, Agentziak urteko lan-programa nola gauzatu duen adieraziko da. Aurreko urtearekin alderatuz, Agentziaren zein agindu eta funtzio erantsi, aldatu edo ezabatu diren adieraziko du argi eta garbi.

Txostenean, Agentziak egindako jarduerak adieraziko dira eta proposatutako helburuen, ezarritako egutegiaren, egindako operazioei dagozkien arriskuen, eta, halaber, erabilitako baliabideen eta Agentziaren funtzionamendu orokorraren arabera erdietsitako emaitzak ebaluatuko dira.

58. artikulua

Gardentasuna eta komunikazioa

1. 1049/2001 Erregelamendua (EE) Agentziaren eskuetan dauden dokumentuetan aplikatuko da.

2. Agentziak bere kabuz egin ahal izango ditu komunikazioak, berari dagozkion misioen esparruan. 52. artikuluan, 3. paragrafoan aipatzen den argitalpenaz gain, bereziki, jendeari eta edozein alde interesduni garatzen duen lanari buruzko berehalako informazio objektiboa, fidagarria eta ulergarria helarazteaz arduratuko da.

3. Edozein pertsona fisiko edo juridikok idatzizko agiria aurkez dezake Agentzian; horretarako, Tratutako 314. artikuluan aipatutako hizkuntzetako bat baliatuko du. Aipatutako pertsonak erantzuna hizkuntza berean jasotzeko eskubidea izango du.

4. Erregelamendu honen arabera Agentziak jasotako informazioa Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000ko abenduaren 18ko 45/2001 Erregelamenduaren (EE) baitakoa izango da, erakunde eta organismoek datu pertsonalak tratatzeari dagokionez eta datu horien zirkulazio libreari ⁽¹⁾ dagokionez pertsona fisikoak babesteko.

IV. ATALA

Finantza-erregimena

(1) L 8 EO, 2001.01.12koa, 1.or.

59. artikulua

Aurrekontua

1. Honako hauek izango dira Agentziaren diru-sarrerak:
 - a) Erkidegoaren ekarpen bat;
 - b) Europako beste edozein herrialdek egindako ekarpena, 66. artikuluan adierazitako Erkidegoaren akordioak betetzeko;
 - c) Agentziak egindako ziurtagiri eta onarpenengatik eskatzaileek eta titularrek ordaindutako tasak;
 - d) argitalpenetatik, prestakuntzatik eta Agentziak emandako bestelako zerbitzuetatik eratorritako sarrerak, eta
 - e) estatu kideek, beste herrialde batzuek edo beste entitate batzuek berariaz egindako ekarpen oro, betiere, ekarpen horiek Agentziaren independentzia eta inpartzialtasuna arriskuan jartzen ez badute.
2. Agentziaren gastuetan langileen, administrazioaren, azpiegituraren eta funtzionamenduaren gastuak barneratuko dira.
3. Diru-sarreak eta gastuek oreka bat mantendu beharko dute.
4. Arautzeari eta ziurtapen-jarduerak egiteko ezarritako eta jasotako tasei dagozkien aurrekontuak aparte jorratu beharko dira Agentziaren aurrekontuan.
5. Administrazio-kontseiluak, diru-sarreraren eta gastuen egoera aurreikusten dituen proiektu batean oinarrituta, Agentziaren hurrengo ekitaldiko diru-sarreraren eta gastuen aurreikuspenak finkatuko ditu urtero.
6. Administrazio-kontseiluak, gehenez martxoaren 31n, 4. paragrafoan aipatutako aurreikuspenen egoera hori igorriko dio Batzordeari eta Erkidegoarekin 66. artikuluan ezartzen diren akordioak bete dituzten estatuei. Aurreikuspenen egoera horretan langile-plantillaren proiektu bat barneratuko da behin-behineko lan-programarekin batera.
7. Batzordeak aurreikuspenen egoera hori Aurrekontu Agintaritzari bidaliko dio, Europar Batasunaren aurrekontu orokorraren aurreproiektuarekin batera.
8. Aurreikuspenen egoera hori abiapuntutzat hartuta, Batzordeak Europar Batasunaren aurrekontu orokorraren aurreproiektuan, langile-plantillari eta aurrekontu orokorrean kargatu beharreko diru-laguntzaren zenbatekoari buruz beharrezkoak ikusten dituen aurreikuspenak ipiniko ditu, eta Aurrekontu Agintaritzari aurkeztuko dio, Tratatuak 272. artikuluari jarraiki.
9. Aurrekontu Agintaritzak Agentziara bideratutako diru-laguntza hornitzeko kredituak onartuko ditu. Aurrekontu Agintaritzak Agentziaren langile-plantilla onartuko du.
10. Administrazio-kontseiluak aurrekontua onartuko du, eta aurrekontu hori behin betikoa izango da, Europar Batasunaren aurrekontu orokorra behin betikoz onartzen denean. Dagozkion doitzeak egingo dira.
11. Administrazio-kontseiluak ahalik eta lasterren jakinaraziko dio Aurrekontu Agintaritzari bere aurrekontuan finantza-aldaketa nabarmenak eragin ditzakeen edozein proiektu gauzatzeko asmoa, bereziki, higiezin jabetzarekin zerikusia duten proiektuena; adibidez, ondasun higiezinak alokatzea edo erostea. Batzordeari ere jakinaraziko dio. Aurrekontu Agintaritzaren adar batek irizpena emateko asmoa jakinarazten duenean,

administrazio-kontseilura helaraziko du sei asteko epean, proiektuaren jakinarazpena egiten denetik kontatzen hasita.

60. artikulua

Aurrekontuaren gauzapena eta kontrola

1. Zuzendari exekutiboak Agentziaren aurrekontua gauzatuko du.
2. Ekitaldi bakoitzaren ondorengo martxoaren 1ean beranduenez, Agentziako kontulariak behin-behineko kontuak aurkeztuko dizkio Batzordeko kontulariari, ekitaldi horri dagokion aurrekontu- eta finantza-kudeaketari buruzko txosten batekin batera. Batzordeko kontulariak deszentralizatutako erakunde eta organismoen behin-behineko kontuak finkatzeari ekingo dio, 2002ko ekainaren 25eko 1605/2002 Erregelamenduko (EE, Euratom), Europako Erkidegoetako ⁽¹⁾ aurrekontu orokorrean aplikagarri den finantza-erregelamendua onartzen dueneko, 128. artikuluari jarraiki.
3. Ekitaldi bakoitzaren ondorengo martxoaren 31n beranduenez, Batzordeko kontulariak Agentziako behin-behineko kontuak aurkeztuko dizkio Kontuen Auzitegiari, ekitaldi horri dagokion aurrekontu- eta finantza-kudeaketari buruzko txosten batekin batera. Halaber, ekitaldi horri dagokion aurrekontu- eta finantza-kudeaketari buruzko txostena Europako Parlamentuari eta Kontseiluari helaraziko zaie.
4. 1605/2002 Erregelamenduko (EE, Euratom) 129. artikulua araber, Kontuen Auzitegiak Agentziaren behin-behineko kontuei buruzko oharra jaso ondoren, zuzendari exekutiboak Agentziaren behin betiko kontuak taxutuko ditu bere erantzukizunpean eta administrazio-kontseiluari helaraziko dizkio hark irizpena eman dezan.
5. Administrazio-kontseiluak Agentziaren behin betiko kontuei buruzko irizpena emango du.
6. Ekitaldi bakoitzaren ondorengo uztailaren 1ean beranduenez, zuzendari exekutiboak behin betiko kontu horiek helaraziko dizkie Europako Parlamentuari, Kontseiluari, Batzordeari eta Kontuen Auzitegiari, administrazio-kontseiluaren irizpenarekin batera.
7. Behin betiko kontuak argitaratu egingo dira.
8. Irailaren 30ean beranduenez, zuzendari exekutiboak Kontuen Auzitegiari horrek egindako oharren erantzuna igorriko dio. Halaber, erantzun hori administrazio-kontseiluari igorriko dio.
9. Zuzendari exekutiboak, 1605/2002 Erregelamenduko (EE, Euratom) 146. artikuluko 3. paragrafoan ezarritakoari jarraiki, kasuan kasuko ekitaldiaren kudeaketa onartzeko prozedura behar bezala garatzeko beharrezkoa den informazio oro aurkeztuko du Europako Parlamentuan, azken horrek hala eskatuta.
10. Europako Parlamentuak, Kontseiluak gehiengo kualifikatuz hala gomendatu ostean, Z+2 urteko apirilaren 30a baino lehen, Z ekitaldiko aurrekontuaren gauzapeanari buruzko zuzendariaren kudeaketa onartuko du.

61. artikulua

Iruzuraren kontrako borroka

1. Iruzuraren, ustelkeriaren eta Zuzenbidearen aurkako beste edozein jardunen aurkako borrokan, 1999ko maiatzaren 25eko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1073/1999 Erregelamenduaren (EE), Iruzuraren

(1) L 248 EO, 2002.09.16koa, 1.or. Erregelamendu hori 1525/2007 Erregelamendua (EE) aldatu zuen azkeneko (L 343 EO, 2007.12.27koa, 9. or.).

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

aurka Borrokatzeko Europako Bulegoak (OLAF) ⁽¹⁾ egindako ikerketei buruzkoaren, xedapenak aplikatuko dira inolako murriztapenik gabe.

2. Agentzia Europako Parlamentuaren, Europar Batasuneko Kontseiluaren eta Europako Erkidegoen Batzordearen arteko 1999ko maiatzaren 25eko instituzioen arteko Akordioari atxikiko zaio, Iruzzurraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoak (OLAF) ⁽²⁾ egindako barne ikerketei buruzkoari, eta dagozkion xedapenak onartuko ditu berehala, bertako langile guztiei aplikatuko zaizkienak.

3. Finantzazio-gaietako erabakietan eta horietatik eratoritzen diren gauzatze-akordio eta -tresnetan, hala badagokio, honakoa adieraziko da espresuki: Kontuen Auzitegiak eta Iruzzurraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoak, Agentzian funtsak jasotzen dituztenen eta haiek hautatzeaz arduratzen diren agenteen gaineko kontrola egin ahal izango dute, unean-unean.

62. artikulua

Ebaluazioa

1. Agentziaren jarduera hasi eta hurrengo hiru urteetan, eta, ondoren, bost urtean behin, administrazio-kontseiluak kanpo-ebaluazio independente bat aginduko du, Erregelamendu hau aplikatzen dela frogatzeko.

2. Ebaluazio horretan Agentzia bere betebeharra eraginkortasunez burutzen ari den aztertuko da. Orobat, Erregelamendu honek, Agentziak eta bere lan-metodoek abiazio zibilean segurtasun-maila goren bat ezartzerakoan zein eragin duten aztertuko da ebaluazio horretan. Ebaluazioan aintzat hartuko dira profesional interesdunen ikuspuntuak, bai europarrena, bai nazionalena.

3. Administrazio-kontseiluak ebaluazioari buruzko emaitzak jasoko ditu eta Batzordeari Erregelamendu honetan, Agentzian edo bere lan-jardueran egin beharreko aldaketei buruzko gomendioak emango dizkio. Gomendio horiek Europako Parlamentura eta Kontseilura helaraz ditzake Batzordeak, berak egindako irizpen eta proposamenekin batera. Hala badagokio, ekintza-plan bat barneratuko da egutegi batekin batera. Ebaluazioaren emaitza eta gomendioak argitaratu egingo dira.

63. artikulua

Finantza-xedapenak

Administrazio-kontseiluak Agentziari aplika dakiokkeen finantza-araudia onartuko du, Batzordearekin kontsultatu ostean. Agentziaren funtzionamenduaren eskakizun zehatzek hala eskatzen duten neurrian eta Batzordeak, alde zuzenetik, baimena eman ostean, araudi horren gainetik 2002ko azaroaren 19ko Batzordearen 2343/2002 Erregelamendua (EE, Euratom) aplika daiteke soilik, finantza esparruko Erregelamendua onartzen duena, Kontseiluaren 1605/2002 Erregelamenduko (EE, Euratom) 185. artikuluan aipatzen diren organismoen buruzkoa. Azken Erregelamendu horrekin Europako Erkidegoen ⁽³⁾ aurrekontu orokorreari aplikatu ahal zaien finantza-erregelamendua onartzen da.

(1) L 136 EO, 1999.05.31koa, 1.or.

(2) L 136 EO, 1999.05.31koa, 15.or.

(3) L 357 EO, 2002.12.31koa, 72.or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

64. artikulua

Tasak eta diru-sarrerak

1. Erregelamendu honetan funtsezkoak ez diren elementuak aldatzeko helburua duten neurriak (Erregelamendua osatzen dutenak), tasei eta diru-sarrerei buruzkoak, 65. artikuluan, 4. paragrafoan agindutako kontrol-dun arautze-prozeduraren arabera hartuko dira.

2. Batzordeak administrazio-kontseiluarekin kontsultatuko du lehenengo paragrafoan aurreikusten diren neurrien proiektua.

3. Lehenengo paragrafoan aipatutako neurriek, bereziki, bestelako kontzeptuengatik tasak edo diru-sarrerak noiz kobratuko diren zehaztuko dute 59. artikuluko lehenengo paragrafoko c) eta d) idatz-zatien arabera, halaber, haien zenbatekoak eta ordainketa-moduak zehaztuko dituzte.

4. Honakoak kobratu egingo dira:

a) ziurtagiriak egin edo berritzea, eta hari lotutako etenik gabeko behaketa lanak;

b) zerbitzuak ematea, zerbitzu bakoitzaren benetako kostua islatuko da;

c) helegiteak izapidetzea.

Tasa eta diru-sarrera guztiak eurotan adierazi eta ordainduko dira.

5. Tasa eta diru-sarreren zenbatekoa finkatzerakoan, diru-sarrerak, hasiera batean, emandako zerbitzu guztien orotariko kostua betetzen dutela bermatuko da. Tasa eta diru-sarrera horiek, 2007an jasotakoak barne, Agentziaren gain utziko dira.

IV. KAPITULUA

AZKEN XEDAPENAK

65. artikulua

Komitea

1. Batzordeari Komite batek lagunduko dio.

2. Paragrafo hau aipatzen den kasuetan, 1999/468/EE Erabakiaren 3 eta 7. artikulua izango dira aplikatzekoak, 8. artikuluan xedatutakoa ere betez.

3. Paragrafo hau aipatzen den kasuetan, 1999/468/EE Erabakiaren 5 eta 7. artikulua izango dira aplikatzekoak, 8. artikuluan xedatutakoa ere betez. 1999/468/EE Erabakiaren 5. artikuluko 6. paragrafoan ezarritako epea hilabete batekoa da.

4. Paragrafo hau aipatzen den kasuetan, 1999/468/EE Erabakiaren 5 bis artikuluko 1etik 4ra bitarteko paragrafoak eta 7. artikulua izango dira aplikatzekoak, 8. artikuluan xedatutakoa ere betez.

5. Paragrafo hau aipatzen den kasuetan, 1999/468/EE Erabakiaren 5 bis artikuluko 1etik 4ra bitarteko paragrafoak eta 5. paragrafoko b) idatz-zatia, eta 7. artikulua izango dira aplikatzekoak, 8. artikuluan xedatutakoa ere betez. 1999/468/EE Erabakiaren 5 bis artikuluan, 3. paragrafoan, c) idatz-zatian eta 4. paragrafoan, b) eta e) idatz-zatietan ezarritako epea 20 eguneko izango da.

216/2008 (EE) erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 79/1, 2008/3/19koa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

6. Paragrafo hau aipatzen den kasuetan, 1999/468/EE Erabakiaren 5 bis artikuluko 1, 2 eta 4. paragrafoak eta 5. paragrafoko b) idatz-zatia, eta 6. paragrafoa, eta 7. artikulua izango dira aplikatzekoak, 8. artikuluan xedatutakoa ere betez.

7. Paragrafo hau aipatzen den kasuetan, 1999/468/EE Erabakiaren 6. artikulua izango da aplikatzekoak.

Erabakia hartu aurretik, Batzordeak artikuluko honetako lehenengo paragrafoan aipatzen den Komitearekin kontsultatuko du.

1999/468/EE Erabakiaren 6. artikuluko b) idatz-zatian ezarritako epea hiru hilabetekoa izango da.

Estatu kide batek Batzordearen erabaki bat Kontseilura aldatzen duenean, azken horrek, gehiengo kualifikatuz, bestelako erabaki bat har dezake hiru hilabeteko epean.

66. artikulua

Europako beste herrialde batzuen parte-hartzea

Agentzia prest izango da Europako beste herrialde batzuen partaidetza onartzeko, betiere, herrialde horiek Chicagoko Hitzarmenaren kontratuan agertzen direnean eta Erkidegoarekin akordioak sinatu dituztenean, eta akordio horien bitartez Erregelamendu honetan eta bertako aplikazio-xedapenetan araututako esparruan Erkidegoko zuzenbidea onartu dutenean eta aplikatzen ari direnean.

Akordio horien egoki diren xedapenei jarraiki, honakoak zehaztuko dituzten mekanismoak garatuko dira: herrialde horiek Agentziaren lanean parte hartzerakoan izango duten izaera, irismena eta bete beharko dituzten arauak, finantza-arloko eta langile-arloko ekarpenei buruzko xedapenak barne.

67. artikulua

Agentziaren egitekoen hasiera

1. Agentziak 2003ko irailaren 28an ekingo die 20. artikulua araberako eskumeneko zaizkion ziurtagiri-egitekoari. Ordura arte, estatu kideek araudi aplikagarria aplikatzen jarraituko dute.

2. 1. paragrafoan aipatzen den egunetik hasita 42 hilabeteko trantsizio-epe gehigarrian, estatu kideek ziurtagiriak eta baimenak egiten jarraitu ahal izango dute, 5, 6, 12 eta 20. artikulua gorabehera, Batzordeak aplikazio-neurrietan ezarritako baldintzen arabera. Testuinguru horretan estatu kideek beste herrialde batzuek egindako ziurtagirien gaineko ziurtagiriak egiten dituztenean, Batzordeak onartutako aplikazio-neurrietan 12. artikuluan, 2. paragrafoan, b) eta c) idatz-zatietan ezarritako printzipioak aintzat hartuko dira.

68. artikulua

Zigorrak

Estatu kideek Erregelamendu hau eta bertako aplikazio-xedapenak ez betetzeagatik egoki diren zigorrak finkatuko dituzte. Zigorrak eraginkorrak, proportzionatuak eta disuasiozkoak izango dira.

69. artikulua

Indargabetzea

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

1. 1592/2002 Erregelamendua (EE) baliogabetuta geratzen da, bigarren lerrokadako xedapenen kalterik gabe. Baliogabetutako Erregelamenduari egiten zaizkion erreferentziak Erregelamendu honi egiten zaizkiola ulertuko da, VI. eranskineko korrespondentzia-taulari jarraiki.
2. 91/670/EEE Zuzentaraua baliogabetua geratzen da, 7. artikuluko 6. paragrafoan aipatzen diren aplikazio-neurriak indarrean sartzen diren unetik hasita.
3. 3922/91 Erregelamenduko (EEE) III. eranskina baliogabetuta geratzen da, 8. artikuluko 5. paragrafoan aipatzen diren aplikazio-neurriak indarrean sartzen diren unetik aurrera.
4. 11. artikuluko xedapenak artikuluko honetako 1, 2 eta 3. paragrafoetan aipatzen diren egintzetako xedapenen arabera onartu edo aitortutako ziurtagiri edo lizentzien jabe diren produktu, osagarri eta ekipamenduei, nahiz erakunde eta pertsoneri aplikatzekoak izango dira.
5. 2004/36/EE Zuzentaraua baliogabetuta geratzen da, Erregelamendu honetako 10. artikuluko 5. paragrafoan aipatzen diren aplikazio-neurriak indarrean sartzen diren unetik aurrera, Zuzentarauko 8. artikuluan, 2. paragrafoan aipatzen diren aplikazio-xedapenen kalterik gabe.

70. artikulua

Indarrean sartzea

Erregelamendu hau *Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean* argitaratu eta hogeit hamar egunera sartuko da indarrean.

5, 6, 7, 8, 9 eta 10. artikuluko dagozkien aplikazio-xedapenetan zehazten diren egunetatik aurrera izango dira aplikatzekoak, dena den, beranduenera 2012ko apirilaren 8an.

Erregelamendu honen elementu guztiak dira bete beharrekoak eta estatu kide bakoitzean zuzenean aplikatzekoak.

Estrasburgon, 2008ko otsailaren 20an.

Europako Parlamentuaren izenean, H.- G. PÖTTERING presidentea

Kontseiluaren izenean, J. LENARČIČ presidentea

ANEXO I

Requisitos esenciales de aeronavegabilidad a que se refiere el artículo 5

1. *Solidez del producto: la solidez del producto deberá garantizarse para todas las condiciones de vuelo previstas durante la vida útil de la aeronave. El cumplimiento de todos los requisitos deberá quedar demostrado a través de evaluaciones o análisis, respaldados, en caso necesario, por pruebas.*
 - 1.a. Estructuras y materiales: la solidez de la estructura deberá estar garantizada no solo en todas las condiciones de utilización normales de la aeronave incluido el sistema de propulsión, sino también en circunstancias más exigentes, y se mantendrá durante toda la vida útil de esta última.
 - 1.a.1. Todos los componentes de la aeronave que, en caso de avería, pudieran reducir la solidez estructural, deberán cumplir las condiciones siguientes sin sufrir deformaciones perjudiciales ni averías. Esto incluye todos los elementos de masa significativa y sus medios de sujeción.
 - 1.a.1.a. Deberán tenerse en cuenta todas las combinaciones de carga que sea razonable prever, y también otras más exigentes, en función de los pesos, la gama de valores del centro de gravedad, las condiciones de utilización y la vida útil de la aeronave. Ello incluye las cargas debidas a ráfagas, maniobras, presurización, superficies móviles, sistemas de control y propulsión tanto en vuelo como en tierra.
 - 1.a.1.b. Deberán tenerse en cuenta las cargas y posibles averías debidas a aterrizajes y amerizajes forzosos.
 - 1.a.1.c. Deberán abarcarse los efectos dinámicos en la respuesta estructural a dichas cargas.
 - 1.a.2. La aeronave no deberá sufrir ninguna inestabilidad aeroelástica ni una excesiva vibración.
 - 1.a.3. De la fabricación, los procesos y los materiales utilizados en la construcción de la aeronave deberán resultar propiedades estructurales conocidas y reproducibles. Deberán justificarse todas las variaciones del comportamiento de los materiales en relación con las condiciones de utilización.
 - 1.a.4. Los efectos de las cargas cíclicas, del deterioro medioambiental, de los daños accidentales o diferenciados en la fuente no deberán reducir la solidez estructural por debajo de un nivel de resistencia residual aceptable. Se difundirán las instrucciones necesarias para garantizar el mantenimiento de la aeronavegabilidad a este respecto.
 - 1.b. Propulsión: la solidez del sistema de propulsión (es decir, el motor y, en su caso, la hélice) deberá demostrarse no solo en todas las condiciones de utilización normales de dicho sistema, sino también en circunstancias más exigentes, y mantenerse durante toda su vida útil.
 - 1.b.1. El sistema de propulsión deberá producir, dentro de sus límites declarados, el impulso o la fuerza que se le exija en todas las condiciones de vuelo previstas, teniendo en cuenta los efectos y las condiciones medioambientales.
 - 1.b.2. Del proceso de fabricación y los materiales utilizados en la construcción del sistema de propulsión deberá resultar un comportamiento estructural conocido y reproducible. Deberán justificarse todas las variaciones del comportamiento de los materiales en relación con las condiciones de utilización.
 - 1.b.3. Los efectos de las cargas cíclicas, del deterioro medioambiental y operativo y de las posibles averías de los componentes no deberán reducir la solidez del sistema de propulsión por debajo de niveles aceptables. Se difundirán las instrucciones necesarias para garantizar el mantenimiento de la aeronavegabilidad a este respecto.
 - 1.b.4. Se difundirán las instrucciones, la información y los requisitos necesarios para garantizar una interfaz segura y adecuada entre el sistema de propulsión y la aeronave.
 - 1.c. Sistemas y equipos
 - 1.c.1. La aeronave no deberá presentar características ni detalles de diseño de los que la experiencia haya demostrado que son peligrosos.
 - 1.c.2. La aeronave, incluidos los sistemas, equipos y aparatos exigidos para la certificación o por las normas de operación, deberá funcionar según esté previsto en cualesquiera condiciones de funcionamiento previsibles y más allá de ellas, teniendo debidamente en cuenta las condiciones de utilización de los sistemas, equipos o aparatos.

Otros sistemas, equipos o aparatos no exigidos para la certificación de tipo o por las normas de operación, independientemente de que funcionen bien o mal, no deberán reducir la seguridad ni afectar negativamente al buen funcionamiento de ningún otro sistema, equipo o aparato. Los sistemas, equipos y aparatos deberán poder utilizarse sin que sea necesario disponer de una destreza o fuerza excepcionales.

- 1.c.3. Los sistemas, equipos y aparatos asociados de la aeronave, tanto considerados por separado como en conexión mutua, deberán estar diseñados de forma que no se produzcan situaciones de avería catastrófica debido a una avería aislada que no se haya demostrado ser extremadamente improbable, y deberá existir una relación inversa entre la probabilidad de que se produzca una situación de avería y la gravedad de sus efectos para la aeronave y sus ocupantes. En cuanto al criterio de la avería aislada mencionado, está admitido que deben tenerse debidamente en cuenta el tamaño y la configuración general de la aeronave y que esto puede evitar que dicho criterio de la avería aislada se dé para algunas partes y algunos sistemas de helicópteros y pequeñas aeronaves.
- 1.c.4. Deberá facilitarse a la tripulación, o al personal de mantenimiento, según corresponda, de forma clara, coherente e inequívoca la información necesaria para realizar un vuelo en condiciones de seguridad e información sobre las condiciones que puedan comprometer la seguridad. Los sistemas, equipos y mandos, entre ellos cualquier indicación o anuncio, deberán estar configurados y ubicados de forma que reduzcan al mínimo los errores que pudieran contribuir a la generación de situaciones de peligro.
- 1.c.5. Deberán tomarse precauciones a nivel del diseño para reducir al mínimo los riesgos para la aeronave y sus ocupantes respecto de peligros probables dentro de lo razonable, tanto dentro como fuera de la aeronave, incluida la protección contra la posibilidad de una avería o un problema significativo que alguno de los aparatos de la aeronave presente.
- 1.d. Mantenimiento de la aeronavegabilidad
 - 1.d.1. Deberán dictarse instrucciones para el mantenimiento de la aeronavegabilidad a fin de garantizar que durante toda la vida operativa de la aeronave se mantenga el nivel de aeronavegabilidad de la certificación de tipo de la aeronave.
 - 1.d.2. Deberán proporcionarse los medios que permitan la inspección, ajuste, lubricación, retirada o sustitución de componentes y aparatos que exija el mantenimiento de la aeronavegabilidad.
 - 1.d.3. Las instrucciones para el mantenimiento de la aeronavegabilidad deberán revestir la forma de manual o manuales, según lo requiera la cantidad de datos que ha de proporcionarse. Los manuales deben contener instrucciones de mantenimiento y reparación, información sobre servicios de mantenimiento, detección de problemas y procedimientos de inspección, en un formato adaptado a la práctica.
 - 1.d.4. Las instrucciones para el mantenimiento de la aeronavegabilidad deben contener limitaciones de aeronavegabilidad que establezcan cada tiempo de reemplazo obligatorio, los intervalos de las inspecciones y el procedimiento de inspección.
2. *Aspectos de aeronavegabilidad de la utilización de productos*
 - 2.a. Deberá demostrarse que se han tenido en cuenta los factores siguientes para garantizar un nivel satisfactorio de seguridad de las personas a bordo o en tierra durante la utilización del producto:
 - 2.a.1. deberán establecerse los tipos de utilización para los cuales se haya homologado la aeronave, así como las limitaciones y la información necesaria para su utilización en condiciones de seguridad, incluidas las limitaciones medioambientales y el rendimiento;
 - 2.a.2. la aeronave deberá poderse controlar y maniobrar en todas las condiciones de utilización previsibles, incluso tras una avería en uno o, en su caso, varios sistemas de propulsión. Deberán tomarse debidamente en cuenta la fuerza del piloto, el entorno de la cabina de pilotaje, la carga de trabajo del piloto y consideraciones en relación con otros factores humanos, así como la fase del vuelo y su duración;
 - 2.a.3. deberá ser posible realizar una transición gradual entre una fase de vuelo y otra sin que ello requiera un nivel excepcional de destreza, estado de alerta, fuerza o carga de trabajo por parte del piloto en cualesquiera condiciones probables de utilización;
 - 2.a.4. la aeronave deberá tener una estabilidad tal que garantice que las exigencias a las que deba hacer frente el piloto no sean excesivas habida cuenta de la fase de vuelo y de su duración;
 - 2.a.5. deberán establecerse procedimientos para la operación de la aeronave en condiciones normales, de avería y de emergencia;
 - 2.a.6. deberán preverse advertencias u otros medios disuasorios, apropiados al caso, destinados a impedir que se sobrepasen las condiciones normales de vuelo;

- 2.a.7. las características de la aeronave y de sus sistemas deberán permitir el restablecimiento de la normalidad cuando se haya atravesado una situación extrema comprendida en el dominio de vuelo.
- 2.b. Las limitaciones de funcionamiento y demás información necesaria para la utilización de la aeronave en condiciones de seguridad deberán comunicarse a los miembros de la tripulación.
- 2.c. Las operaciones del producto deberán protegerse contra los peligros resultantes de las condiciones adversas, tanto externas como internas, incluidas las condiciones medioambientales.
- 2.c.1. En particular, no deberán derivarse situaciones de inseguridad de la exposición a fenómenos como —aunque no solo— las condiciones meteorológicas adversas, los rayos, el impacto de aves, los campos radiados de altas frecuencias, el ozono, etc., que sea razonable prever durante la utilización del producto.
- 2.c.2. Los compartimentos de la cabina ofrecerán a los pasajeros condiciones de transporte apropiadas y una protección adecuada contra cualquier peligro en operaciones de vuelo o del que resulten situaciones de emergencia, incluidos el fuego, el humo, los gases tóxicos y los riesgos de descompresión rápida. Deberán establecerse disposiciones para ofrecer a los ocupantes las mayores probabilidades de evitar cualquier lesión grave y de poder abandonar rápidamente la aeronave y para protegerlos contra los efectos de las fuerzas de desaceleración en caso de aterrizaje o amerizaje urgente. Deberán preverse señales o carteles claros e inequívocos en función de las necesidades, para ofrecer a los ocupantes instrucciones que les permitan adoptar comportamientos adecuados y seguros y localizar y utilizar correctamente los equipos de seguridad. Los equipos de seguridad obligatorios serán fácilmente accesibles.
- 2.c.3. Los compartimentos de la tripulación estarán dispuestos de tal forma que se faciliten las operaciones de vuelo, incluidos los medios que permitan tomar conciencia de situaciones, y la gestión de cualquier situación o emergencia esperadas. El entorno de los compartimentos de la tripulación no comprometerá la capacidad de la tripulación para realizar sus tareas y estará diseñado de tal forma que evite interferencias durante las operaciones y un uso erróneo de los controles.
3. *Organizaciones (incluidas las personas físicas que intervienen en el diseño, fabricación o mantenimiento)*
- 3.a. La aprobación de una organización se expedirá cuando se cumplan las condiciones siguientes:
- 3.a.1. la organización deberá tener los medios necesarios para llevar a cabo los trabajos de que se trata. Estos medios incluirán, aunque no únicamente, los siguientes: instalaciones, personal, equipos, herramientas y material, documentación de cometidos, responsabilidades y procedimientos, acceso a datos pertinentes y registro de datos;
- 3.a.2. la organización deberá aplicar y mantener un sistema de gestión que garantice el cumplimiento de estos requisitos esenciales en materia de aeronavegabilidad, y tratará de mejorar dicho sistema de manera permanente;
- 3.a.3. la organización deberá establecer arreglos con otras organizaciones pertinentes, según sea necesario para garantizar que sigan cumpliéndose dichos requisitos esenciales en materia de aeronavegabilidad;
